

Joanes Haraneder

GUDU IZPIRITUALA

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Gudu izpirituala*, Ioannes Haraneder
(faksimilea). Hordago, 1978

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00717.htm>

GUDU IZPIRITUALA
zeinetan aurkhitzen baitdire
pasioneen bantzutzeko
eta bizioen garaitzeko
moyenik hoberenak eta segurenak

N.I.D. Donibane Lohitxuko Jaun Aphezak
berriro Eskuararat itzulia.

Saltzen da Bayonan,
L.-M. Cluzeau, liburu eta
paper marxantaren baithan,
Kathedraleko Plazan, N. 13.
1827

Toulouse, Imprimerie de J.-M. Corne,
rue Pargaminières, n. 84

IRAKURTZAILEARI ABISUA

Gudu izpiritualaren Liburuak bere izenarekin dakharke bere Laudorioa. Bizitze saindu eta Yainkozko bati dagozkon gauza guziak hitz gutitan zerratzen ditu, Ebanyelioko Maxima handien, eta guziz nork bere buruaren mesprezatzeko eta zehatzeko moyenak irakhasten ditustenen Bilduma labur bat da. Ezin irakur deiteke edifikatua izan gabe. Huntaz baliatzen yakinen duena laster errendatuko da presuna izpirituak, eta denbora gutiz ikhasiko du kreaturetarik urruntzen, Kreatzailearekin yosia egoiteko.

Efetu haukien hainitz exenplu banituzke ekhartzeko; bainan kontentatzen naiz San Frances Saleskoarenaz, zeinak Liburutto hau berekin, hogoi urtheren inguruaz, erabili baitzuen, eta hau irakhurriaren fortxaz igan baitzen eta heldu perfekzionerik gorenera. Hau deitzen zuen bere direktora; eta maiz irakhurtzea gomendatzen zaroten gidatzen zituen presuna guziei. Ez zuen Jesu-Kristoren Imitazionearen Liburua baino gutiago estimatzen: haren gainean zerbeitetan

emaiten ere zioen preferentzia eta garaia; zeren bi Liburu hauk xede berekoak izan arren, (zeina baita Yainkoa ez den guzietarik laxatuak izaitera Arimak erakhartzea) moldeak diferentak baitdituzte. Imitazionea, elkharrekin aria sobrarik bethi ez duten Septenzia hainitzezko mulzo bat da: ordean Gudu izpiritualak propos segituak, eta materiak funtseraino tratatzen ditu. Dena dela, San Fransesek liburu hau eskuetan zuen maiz, eta egunik ez zuen pasatzera usten zenbeit Kapitulu, edo bederen zenbeit plama irakurri gabe. Hala hala, erran daiteke bere bizi guzian huntako izpiritua hartu beharrez, thematu dela; eta hemen hartu zituela Erregela hek, zeinetaz bethi, bere pasioneen eta bere bihotzeko mobimenduen gainean zuen nausitasun oso haren ardiesteko, baliatu dela.

Liburu, Nazione guziez estimatu hunek famak eta merezimenduak altxa arazi du ihardukitze handi bat hainitz Ordenetako Fraiden artean, hunen Egile egiazkoa nor denaren gainean. Ordean huntaz izanen da, Imitazioneaz dena: yakin gabe nor duen egiazko Autora, eta zein Lengoayetan egina izatu den, azken mendeeta-

raino irakurria izanen da, eta guzietan fruituak ekharriko eta progotxuak eraginen ditu.

Lehen itzulia izatu da Eskuarara; ordean Eskualduna ez zen itzultzaile batek egin ohi zezaken Eskuara gaits eta arraño gabeko batera; eta ordukoan ez ziren hogoi eta hamahirur Kapitulu baizen; huntan arkhituko ditutzu bietan hainbertze.

Balia zaite beraz Liburu guziz on, ordean, ene parthetik ahal xumeen araberako Obra aphur huntaz; hemengo erregelek markatzen darotzuten bezala gudukatu ondoan lurraren gainean, ardiets dezazun Jesu-Kristoren Soldado egiazkoentzat preparatua den Khoroa Dohatsuen egoitzan. Hori izatu da ene trabailuaren xedea, zeinaren saritzat errekeritzen baitzaitut ni zure Othoitzetan partaler egitea.

GUDU IZPIRITUALA

Nihor ez da khorroatua izanen,
ongi gudukatu daitena baizen.
(II Tim, 2.)

LEHENBIZIKO KAPITULUA

*Zertan datzan giristiñoaren
perfekzioea: hunen ardiesteko,
gudukatu behar dela; eta Gudu
huntan bitoria eramatekotzat, lau
gauza nezesario direla.*

Baldin, o Ene Arima! desiratzen baduzu Eban-yelioko perfekzioearen gorenera igaitea, eta zure burua Jaiñkoarekiñ haiñ hertsiki yuntatzea, non ez baitzare harekiñ, ispiritu-bat bera baizen, izanen; erran eta imayina ahal deiteken deseñu guzietarik, handiena eta nobleena den hau konplitzeko, yakin behar duzu berehala, zer den, segurki eta perfetki, Izpiritual izatea.

Nola batzuek izpiritualtasunari ez baitdiote kanpotik baizen behatzen, uste dute, izpiritual izatea datzala penitenzia agerietan eta kanpokotan, hera, izifriña, barur eta gaubeilletan, eta bertze hunelako mortifikazioneetan.

Haiñitzak, (eta bereziki emakumeak), bertutean fiñkatuak eta ahituak direla imayinatzen

dire, noiz eta ere usantza bat hartu baitute, mihiz othoitz luzeak egitekoa, haiñitz Meza entzutekoa, Elizan denbora haiñitz egotekoa, maiz Komuniatzekoa.

Batzuek, (bai eta komentuetan Jaiñkoa zerbitzatzeko dutenek ere), uste dute, perfet izateko asko dela, khoroara goatetik ez behiñere faltatzea, erretretan, eta hitzik egiñ gabe egoten lakhetzea, eta Ordenako Erregela ongi gardatzea. Horlatan perfekzioa batzuek ezartzen dute pratika edo debozione batzuetan, eta bertzeek bertze bertzeek batzuetan: baiñan segur da guziak tronpatzen direla. Ezen nola kanpoko pratika horiek ez baitdire, edo saiñdu perfet izateko dispozione batzu baizen, edo saiñdutasun perfet baten fruitu batzu baizen; eziñ erran deiteke, horietan datzala giristiño baten perfekzioa, eta egiazki izpiritual izatea.

Horiek dire, egia da, funski izpiritual eta egiazki perfet errendatzen gaituzten moian balios batzu: eta, behar den ponturañokoan praktikatzeko direnean, haiñitz zerbitzatzeko dire, naturaleza, ungira bethi uzkur eta gaizkira bethi lehiatsu denaren, borthitzteko, gure etsai bethi-

koaren borrokak edo atakadak apartatzeko eta erreferatzeko, eta haren arte gaxtoei ihes egiteko; eta fiñean, yustu guzientzat, eta beregainki izpiritualtasunaren hastean direnentzat, nezesario diren, laguntza bereziak Misericordien Aita ganik ardietsteko.

Horiek dire oraiño, presuna osoki saiñdu eta izpirital direnen baitan, bertute ohitu eta kontsumitu baten fruitu exselentak. Ezen haiñek bere gorphutzak dorpheki tratatzen dituzte edo bere huts iraganen punitzeko, edo bere Kreatzaillearen aiñtziñean humiliatuak eta sumetituak egoteko.

Egoten dire bakhartasunean eta ixiltasunean mundupetik urrhunduak, bere buruak huts den xumeenetarik goardatzeko; eta ez izateko gehiagoko konbersazionerik Zeruan Aiñgeruekiñ baizen: Obra onetan eta Jaiñkoaren zerbitzuan okupatuak dire; bethi othoitzean daude; Salbatzallearen Biziaren eta Pasionearen: gaiñean Meditazioan egoten dire, ez kuriostasunaren ispiritu batez, ez zeren hortik bere sensuetan zenbeit gozo hartzen duten; baiñan zeren handizki desiratzen baitdute hobeki ezagutzea, alde batetik,

Miserikordia dibinoaren handitasuna, eta berze aldetik, bere eskergabetasunaren hedadura; zeren lehiatu nahi baitdute *geroago eta gehiago* Jainkoa maitatzera, eta bere buruak higuñtzera, eta bereziki Jesus maitea segitzera: garraiatzen dutelarik haren Gurutzea; ukho egiten diotelarik bere amodio propialari; errezibitzen dituztelarik maizago Sakramenduak, eta hau, bertze xederik gabe, Jainkoa ohoratzea, harekiñ hertsikiago yuntatua egotea baizen; Ifernuko atakaden kontra borthitzago errendatzea baizen.

Kontrarioa gerthatzen zaie yende xehe grosierei eta inperfetei, zeñiek bere deboziona ezarten baitute pratika kanpokoetan: eta maiz, bekhatu ageriek eta eskandalosek baiño, kalte gehiago egiten daroe; ez, bere baitarik onak ez izanez, baiñan zeren horietz gaizki baliatzen diren. Halako gisaz horiei lotzen zaizte, non, bere bihotzen gaiñean atzarriak egotaz negliaturik, libertate osoa ematen baitdiote bere bihotzari; uzten baitdute bere pendurak segitzera; eta libratzen Satanen tronperien menera. Eta orduan izpiritu Enganiatzaille hunek, ikhusirik bide xuxenetik urhunduak dabilzala, ez xoillki

gonbidatzen ditu, kanpoko pratika hek gozturekiñ kontinoatzera, baiñan oraiño bethetzen diote imayinazionea Parabisuko gozoen idea falso batez, non uste baitdute, ya Aiñgeruen artean direla, eta Jaiñkoaren presenziaz gozaten direla. Bere othoitzean daudezenean, malezioski inzipiratzten daroe Jaiñkozko pensamendu haltoak, kuriosak, agradagarriak; nolazbaitere munduarekiñ eta munduko gauzekiñ hautsirik, hirurgarren Zeruraño altxatuak direla uste izan dezatentzat.

Baiñan aski da, hekiñ bizitzeko moldearen gaiñean, atenzione, den gutiena egitea; ikusten da hekien errebelamendua: eta ageri da, galdegiten dugun perfekzione halto hartarik, zeñ apartatuak eta urhun diren. Ezen gauza guzietan, handietan nola tipietan, bertzeen gaiñeko eta nausi izan nahi dute; ez dute yuiatzen bere yuiamendu propialaz baizen; eta berei datxeizkoten gauzen gaiñean itsuak, bethi begiak idekiak daduzkate, bertzeen akzioneerai goardia emateko, ondoan hetaz, gaizki errateko, Baldiñetaria munduan dutelako fama on funtsgabeko horri, (zeiñaren gaiñean yelos agertzen baitdire)

norbeitek daiñu den xumeena egiten badio, baldin usatzen duten debozionarioen edozeiñ praktika kitatzea manatzen bazaiote, guziak nahasiak eta estraniozki khexatuak edo inkietatuak dire. Baldiñ Jaiñkoak berak ere markatzen badu, nahi diotela haiñei bere buruak ezagut-arazi, eta perfektzionerako bide egiazkoa irakhatsi; hortakotz egortzen badiozte trabesiak, eritasunak, pertsekuzionerik krudelenak, (zeiñak baitdire Jaiñkoaren zerbitzarien fidelitatearen frogarik segurenak, eta haren ordenarik, edo permisionerik gabe gerthatzen ez direnak) orduan agertzen da hekien barrena, urguillieriaz hondoraiñokoan pozoĩnatua.

Bizitze huntako gerthakari guzietan, nahiz onetan, nahiz gaxtoetan, ez dakite zer den Jaiñkoaren borondatearekiñ berea konformu atxikitzea; haren beso guziz puxantaren azpian behetituak eta humiliatuak izatea; haren yuiamendu, yustu bezain, gorde eta eziñ zundatuzkoei sumetituak egotea; Jesus humiliatuaren eta zauriztuaren etsenplutan, kreatura guzien azpian bere buruak ematea; bere pertsekutatzaillen maitatzea; orhoiturik Ontasun dibinoa, *erran nahi da*

Jaiñkoa, gure etsaiez baiiatzen dela, gu nahigabetan kostumatzeko, eta biak elkarrekiñ trabai-latzeko, ez xoillki gure salbamendua egiten, baiñan oraiño gu perfekzionera igan-arazten. Hortik heldu da, galduak izateko hirrisku hurbill batean bizi baitire. Ezen amodio propialaz illhunduak eta goibelduak diren begiez, begiraturik, eta bere buruei eta egiten dituzten akzione berenez onak direnei, berehala urguillos errendatzen dire; bere buruak Zeruko bidetan haiñitz aiñtziñatuak baidauzkate; eta maiz urguillutasun hunek haiñ handizki itsutzen ditu, non Jaiñkoaren Grazia guzien gaiñeko extraordinario bat behar baita, haiñen konbertitzeko.

Non ez den hala, egun oroz frogatzen dugu pena haiñitz gutiago behar dela bekatore eskandalos, eta deklaratu baten konberti-arazteko, ezen ez, bertutearen kaparen azpian, bere buruari ere gordea eta borondatezki gerizatua dagoen bekhatore bat bihur-arazteko. Orai ungi konprenitzen bide duzu, bizitze izpirituala ez datzala aiphatu ditugun gauza horietan guzietan, baldiñ ageri diren partetik baizen, ez baditugu konsideratzen. Huna bada propialki zertan

datzan izpiritual izatea: Jaiñkoaren Ontasun eta Handitasun infinitua, ezagutzean, eta denbora berean gure aphaltasuna eta gaizkirako pendura sentitzean; Jaiñkoa maitatzean, eta gure burua gaitzestean; garen guziak, ez xoillki Jaiñkoari, baiñan oraiño kreatura guziei haren gatik sumetitzean; gure borondate propialari osoki ukho egitean, harena segitzekotzat; eta guzien gaiñetik, hauk guziak egitean, haren Izen saiñduaren gloria xoillaren amoreak gatik; hari atsegiñ egiteaz landan, bertze deseñurik gabe; xoillki zeren hark horrela nahi duen; eta zeren merezitzen baitu kreatura guziez maitatua eta zerbitzatu izatea.

Hori da, yustuen bihotzetan Izpiritu saiñduak ezarri duen, amodiozko Legeak ordenatzen duena; hortan konplitzen da bakhotxak bere buruaz egin behar duen ukhoa, Salbatzailleak Ebanyelioan hanbat gomendatzen duena; horrek endatzen du Jesusen ustarria haiñ ezti eta hunen karga haiñ arin; hortan datza, hitzez eta etsenpluz Nausi dibino hark bethi irakhatsi darokun, obediencia perfeta. Bada perfekzionearen gradurik gorenera igateko lehia duzunaz geroz, egiñ

behar diozu zueure buruari gerla bethiereko bat, eta zure indar guziak enplegatu behar ditutzu, zure baitan diren afekzione biziotsu guziak destruitzen, den xumeenak badire ere. Hortarakotz baitezpada preparatu behar duzu guduan haritzera, ahalik deliberazione eta Khar handienarekiñ zeren *nihork ez baitu khoroa eramane, non ez den yeneroski gudukatzen.*

Ordean yakiñ zazu, nola ez baita gerla hau baiño borthitzagorik, huntan geroni gure buruen kontra altxatzen garenaz geroz, orobat ez dela bitoriarik hau baiño Jainkoarentzat agradagarriagorik, eta garaitzaillearentzat gloriosagorik. Ezen nork ere baitdu kuraierik asko bere pasioenen mortifikatzeko, bere borondate propialaren mobimendu den xumeenak ere, zebatzeko eta ithotzeko, haiñak Jaiñkoaren begietan merezimendu gehiago duen obra bat egiten duela, ezen ez, hauk gabe, izifriña zorrotzenez bere burua zathika lezakenak; lehenbiziko Ermitauek baiño barur garratzagoak egiñ lezakenak; bai eta oraiño hainitz milla bekhatore konberti-araz lezakenak baino ere.

Eta egiaz, funtsean egia den arren, Jaiñkoak Arima baten konbersioneaz kontu gehiago egiten duela, egiten duen baiño zenbeit mobimendu, deserregelatuen mortifikatzen ikhustez; hala ere baxhotxak bere artha prinzipala eman behar du, Jaiñkoak partikularrean galdegiten ditzan gauzen konplitzen. Bada gauza guzien aiñtziñean, Jaiñkoak galdegiten duena da, baxhotxa bere pasioneak ziñ-ziñez mortifikatzen travailla dadiñ: eta hunek plazer gehiago egiten dio, zenbeit zerbitzu premia edo inportanzia handiagokoak, bihotza korrupitua den denboran, errendatzeak baiño.

Orai beraz horra non badakizun, zer den giriztiñozko perfekzionea; eta, hartara igateko, deliberratu behar duzula zure buruaren kontra gerla kontino bat egitea. Has zaite lau gauzez, arma batzuez bezala, probisione edo billkoi egiten: Gudu izpiritual huntarik, hek gabe, bitorios illkhitzea imposible izanen da zuretzat. Lau gauza hek dire: 1. zure indarren eta ahalen gaiñean batere ez fidatzea; 2. Jaiñkoa baitan zure fidantzia osoa ematea; 3. zure gorphutzeko eta zure arimako puxantza guziez enplegu ona egitea, eta 4.

othoitzza maitatzea. Horietaz edarki eta laburzki, Jaiñkoaren graziarekiñ batean, mintzatuko gare, heldu diren kapituluetan.

II. KAPITULUA

Nihork ez duela behar fidatu bere ahalen eta indarren gainean.

Gudu izpiritualean nork bere baitan fidantziarik ez izatea haiñ nezesario da, non, bertute hau gabe, ez xoillki gure etsai guziak eziñ garai baitdetzakegu, baiñan oraiño ez baitgare gai pasione den xumeena ere bentzutzeko. Gure izpirituan barna ungi fiñkatu eta zigillatu behar dugu egia hau, zeren, ez deus phuru batzu baizeñ ez garen arren, hala ere gure buruazko stimu bat hartzera lerratzen baitgare, eta arrosoiñik baterre gabe sinhesten baitdugu zerbeit bagarela. Bizio hau gure naturalezaren phozoaduratik heldu den efetu bat da: ordean, zeren den naturala, hargatik da ezagutzeko gaitzagoa. Gauza guziak perfetki ezagutzen dituen Jaiñkoak, huni aborrentziarekin behatzen dio, zeren nahi baitu, ziñki seguratuak izan gaitezen, ez dela gure baitan ez bertuterik, ez graziarik, haren gañik baiizen, *(zeiña baitda ungi eta on guzien ithurbu-*

rua), ilkhitzen denik; eta yakiñ dezagun, ez garel-
la, hura gabe, gai, haren gogarako izan deiteken,
pensamendu bakhar bat izateko ere.

Ordean gure buruazko ezfidantzia hau, den
arren Zeruko dohaiñ bat, Jaiñkoak bere maiteei
ematen daroena, batzuetan bere inspirazione
saiñduez, bertze batzuetan nahi gabe dorphe-
nez, orai tentazione hurren eziñ garaituzkoez,
gero kanporatzen ez diren, bertze moienez;
halaere nahi du, ezfidantzia hau izateko, egin
ahal gauza guziak gure partetik egiñ detzagun.
Faltatu gabe ardietsiko dugu, baldiñ, orai men-
tzatzera noan lau moienez, haren graziarekiñ
batean, ungi baliatzen bagare.

Lehena da, bethi begien aiñtziñean izan
behar dugula gure aphaltasuna eta ezdeustasu-
na, ezagutzen eta aithortzen dugula, eziñ, gure
ahal eta indar xoillez, egiñ dezakegula ungi bat
ere, ez eta deus Zerukotz merezimendu batere
izan dezakenik.

Bigarrena da, humilltasun eta debozione han-
direkin Jaiñkoari, haren ganik baizen, ezin izan
dezakegun, berthute premiatsu edo inportant
hori galdetu behar diogula khartsuki. Hortara-

kotz berehala aithortuko dugu, bertute hori, ez xoillki ez dugula, baiñan oraiño, gure baitarik, niholere eziñ izan dezakegula. Ondoan emanen gare ahuspez Jaunaren oiñetan, eta haiñitz aldiz berari galdetuko diogu, esperantza fermu batekiñ entzunak izanen garela, baldin gure othoitzaren efetua astiroki eta pazienziarekiñ igurkitzen badugu, eta baldiñ ez bagare gelditzen othoitz egitetik eta errekeritzetik haren probidenziak nahi izanen duen bezanbat denbora luzean.

Hirurgarrena da, behar dugula baratxe-baratxe kostumatu gure buruaz ez fidatzen, gure yuiamendu propialaren tronperiez beldurtzen, gure naturalezak bekhatuta duen pendura bort-hitzak izitzen, eta gure etsaien oste eta nonbre ikharagarriaz trantzituak izaten: etsai batzu, zeinek alde guzietarik atakutzen baitgaituzte, zeinak, konparazionerik gabe, gu baiño siñeziosa-goak, yakintsunagoak eta hazkarragoak baitdire, zeinek baitdakite Aiñgeru onen figuraz estaliak agertzen, eta finean zeinek, Zerurako bide guzian, behaztapatzeko hartekak, eta arrastatzeko edo atrapatzeko segadak hedatzen baitde-rauzkigute.

Laugarren moiena da, zenbeit hutsetan erortzen garen aldi guzian, sarthu behar dugula gure barrenera, atenzionerekiñ konsideratzeko, noraraño dohan gure flakotasuna; zeren Jaiñkoak ez baitditu permetitzen gure erorikoak, haukiñ medioz berri-berritan argituak, lehen baiño hobeki gure buruak ezagut detzaguntzat baizen gure buruak, kreatura herbal batzu bezala, mesprezaten ikhas dezaguntzat baizen, eta bertzeez ere mesprezaturia izan nahizko desira ziñ-ziñezko bat konzebi dezaguntzat baizen. Hori gabe, ez dugu esparantzarik izan behar gure buruazko ezfidantzia hura niholere badugula: ezen bertute, hau humilltasunaren gaiñean eta gure miserien ezagutza egunorozkoaren gainean fundaturia da.

Eta egiaz, nork ere nahi baitu hurbilldu Egia Berebaitarikakoa *Jaiñkoa* gana, argien lthurburura, baitezpada ezagutu behar du funski bere burua, eta ez du izan behar superbiosak bezalakoa, zeinak, bekhatutan eroriz, yakintsun errendatzen baitdire, eta ez baitdituzte begiak idekitzen zenbeit huts ahalkagarritan erori direnean baizen; Jaiñkoak hola permetitzenez, bere flakotasuna senti dezatentzat, eta froga ondikozko

horrelakoez, has deitezentzat bere indarren gaiñean batere ez kondatzen. Ordean Jaiñkoa komunzki ez da baliatzen erremedio haiñ dorpheaz bertze erremedio errexagoek eta eztiagoekek, hark galdegiten zuen, efetua izan ez dutenean baizen.

Gaiñerakoan permetitzen du, gizona maizago, edo bakhanago eror dadiñ, urguilleria gehiago edo gutiago duenaren arabera. Eta baldin aurkhi ahal baledi kreatura bat, Biryina Maria bezala, bizio huntaz khutsatzen ez litekenik, ausartatzen naiz erratera, haiña huts batetan ere ez litekela eror. Beraz zenbeit hutsetan erortzea gerthatzen zaitzunean, duzun berehala errekersu zure buruaren ezagutzera. Errekeri zazu Jesus Kristo gure Jauna berak eman dietzakituzula argi egiazkoak; berak ezagutzen zaituen bezalakoa, zuk ere zure burua ezagut dezazuntzat, eta zure bertuteez presomzione hartzetik edo hanpurutzetik geldi zaitkontzat. Non ez; berriz huts beretan eroriko zare, eta menturaz handiagoetan ere, zeinek zure arimaren damnazionea eta kalte eternala kausatuko baitderautzute.

III. KAPITULUA

Jainkoa baitan izan behar den fidantziaz.

Gure buruez ez fida izatea, orai irakutxi dugun bezala, baitezpadako bertute bat den arren gudu Izpiritualean; hau baxharrik bada eta bertze laguntzarik gabe, ihes lauster egiñen dugu, edo etsaiak armak eskuetarik arrapatuko darozkigu, eta bentzutuak izanen gare. Bertute huni beraz yuntatu behar diogu, Jainkoa baitango fidanzia handi bat: ezen Jainkoa da ungi guzien Autora eta hark baxharrik ardiets-araz diezakegu bitoria. Baldiñ egia bada, gure funtsetik deus ez garella, bekhatu handietan, ondikozkoetan, eta maiz eroriko garella, eziñ gaudezke beldurtu gabe. Badugu ere arrazoiñik asko, gure indar propialen gaiñean batere ez fidatzeko. Baiñan baldiñ gure flakotasunaz osoki seguratuak bagare, abantaila eta bitoria haiñitz, dudarik gabe, ardietsiko dugu gure etsaien gaiñean, Jainkoaren laguntzarekiñ batean: Ezen Zeruko gra-

ziak gureganatzeko, deus ez da botheretsuagorik, nola baita Jaiñkoa baitan fidantzia yeneros bat izatea. Bertute exselent hau ardietsteko, baditugu halaber lau moian. Lehena da, bertute hau Jaiñkoari humillki galdetzea. Bigarrena da, Fedearen begiez atenzionerekiñ konsideratzea, zenbatetarañokoan Izate soberano hau den Guziz botheretsua eta infinituzki zuhurra; haren Ontasunak ez du eta, ez neurrik ez mugarririk; eta hura zerbitzaten hari direnentzat duen amodioaren gaiñdidura batez, bethi eta momento guziez prest dagoela, gizon izpiritualak bezala bizitzeko, eta osoki bere buruen nausi izateko, behar dituzten grazia guzien ematera.

Jaiñkoak hortarakotz gureganik galdetzen duen gauza baxharra da, izan dezagun haren gana fidantziarekiñ erre Korsu. Eta zer yustuagorik? Nola liteke posible, Artzaiñ amulso hunek, hogoi eta hama hirur urthez, ardi errebelatuaren bilha, bere odol guzia, eta bere Bizia gostatzerañokoan, bide nekhagarriez eta aranzez estaliez, nekhatua ibilli ondoan, nola, diot, liteke posible, haiñ Artzaiñ onak, ardi maite hura orai ikhusten duenean bere gana bihurtzen zaiola, maxima

sainduen arabera bethi bizitzeko deseñuarekiñ, ordean menturaz borondate, oraiño flakoxkoa, baiñan ziñ-ziñezkoa den batekiñ, ez dioela begi onez begiratu nahiko, haren oihuei ez diotela beharria paratu nahiko, edo ez duela eraman nahiko, sorbalden gaiñean harturik, bere heiara. Ez, ez da dudatzeko, Artzaiñ manso hunek ez duela sentitzen bozkario eziñ gehiagoko bat, hunelako ardi bat arthaldean errezibitzen duenean; gonbidatzen ere ditu Zeruko Aiñgeruak alegeratzera, eta bere bozkarioan parte hartzera.

Ezen baldiñ hanbat artharekiñ eta hanbat khexagunerekiñ bithatzen badu Ebanyelioko (Dragma) edo diru peza, zeña baita bekhatorearen figura; baldiñ etxe guzia itzulikatzen badu hunen aurkhitzeko, nola arbuia othe dezake, bera, Artzaiña ikhusi gabe, sobra egonaz urrikitia den ardi bat bezala, heiara bihurtzeko eginbidetan ematen denean? Zer aparantzia, gure arimen Espos, bethi eta bethi gure bihotzeko atheari edo borthari yoka hari zaioena, bihotz hartan sarthu nahiz, hiratzen hari dena, gurekin yuntatua izatea, eta gu bere ontasunez bethe-

tzea baiño, atsegin handiagorik ez duena, zer aparantzia, athea idekia aurkhitzen duenean, bere bisitaz ohora gaitzala, gutaz othoiztua dela ikhusten duenean, lehiarekiñ desiratzen eta galdetzen dugun faborea errefusatuko darokula?

Hirurgarren moiana Jaiñkoa baitan behar dugun fidantzia hau ardiesteko, da, maiz gogora erakhartzea Eskritura saiñduko hitzak eta pensamenduak; hauk dire egiaren Orakle segurak, milla lekhutan klarki segurutzen gaituztenak (*Jaiñkoa baitan esparantza duena, ez dela nihoizere ahalkerian eroriko*): erran nahi da, Jaiñkoa baitan esparantza duenak, sentituko duela bere baitan, bai eta erakhutxiko kanpora ere, ez dela haren fidantzia banoa, baiñan bai efetuzkoa eta segura.

Fiñean laugarren moiana, nor bere buruaz ez fidatzea, eta Jaiñkoa xoillaren gaiñean behar den fidantzia, batean eta elkharrekiñ gureganatzeko, hauxe da. Zenbeit obra on egiteko, edo zenbeit pasione bentzutzeko dugunean, begiak itzuli behar ditugu gure flakotsunaren gainera alde batetik, eta bertze aldetik, Jaiñkoaren Botherearen, zuhurtziaren eta Miserikordia infinituaren

gaiñera. Ikharatuko gaitu, egia da, gure burua konsideratzeak; ordean Jaiñkoaz beraz seguruak, faltatu behar dugu kuraioski travaillu nek-hagarri guzietara, eta gudu borthitzenetara eta dorphenetara. Horra lau arma, zeinei yuntaturik othoitz khartsuak, gai izanen baitgare, segidan ikhustera goazen bezala, deseñu handiak exekutatzeko edo obretartzeko, eta bitoria seiñalatuena irabazteko.

Baldiñetaria erregela hauk segitzea faltatzen badugu, Jaiñkoa baitan dugulako esparantza egiazko baten prinsipioz travaillatzen garela idurituko zaikun arren, guxienez enganioan izanen gare; zeren presomziona edo hantpurutasuna haiñ natural baita gizonarentzat, non, sentitu gabe, nahastekaten baita, Jaiñkoa baitan duela, fidantziarekiñ. Hortarakotz, presomzionetik, urhun ahal bezanbat, urhuntekatzat, eta obra guzietan sar-araztekatzat, bizio huni kontra egiten dioten, bi bertuteak, nezesario da, Jaiñkoaren Bothere guzizkoa konsideratu baiño lehen, konsidera dezagun gure herbaltasuna; eta gure obra hasi baiño lehen bi konsiderazione horiek gogora erakhar detzagun.

IV. KAPITULUA

Zertarik yuia ahal dezakegun gure buruazko ezfidantzia eta Jainkoa baitan behar den fidantzia egiazki baditugula.

Gizon hantpurutsu, edo presomzinez bethea den batek, uste du, bere buruazko ezfidantzia eta Jainkoa baitan fidantza oso bat ardietsi duela; ordean hau da enganio bat, nihoiz-ere haiñ klarki ezagutzen ez dena, nola zenbeit bekhatutan erorzea gertatzen zaioenean. Ezen baldiñ orduan trublutzen, nahasten eta afliyitzen bada, eta bertutean aiñtzina goateko esparantza guziak galtzen baditu; marka da, bere fidantzia, ez jaiñkoa baitan, baiñan bere baitan ezarri zuela. Eta zenbatenaz baitdu tristezia eta esparantza eskas handiagoa, hanbatenaz yuia daiteke, pontu hunen gaiñean, hobendunago dela.

Ezen bere indarren eta ahalen gaiñean bate-re fidatzen ez den gizon bat, eta jaiñkoaren gaiñean fidatzen den bat, ez da suprenitzen, ez

inkietatzen, ez xagriñatzen, zenbeit hutsetan erortzen denean; zeren segurki ikhusten baitu hori dela, bere flakotasunaren, eta Jaiñkoa baitan bere fidantzia ezarteko atzartasun eskasaren efetu bat. Kontrara, bere erorikoak eta bekhatuak irakhasten dio, bere indarren gaiñean gutiago fidatzen, eta Bothere guzia duenaren laguntzaren gaiñean bere fidantzia guzia ematen. Gaitz guzien gaiñetik higuintzen eta abhorritzen du bere bekhatua: kondenatzen du, haren kausa izatu den, pasionea edo habituda gaxtoa eta hiziorakoa: dolore miñ-miñ bat sentitzen du bere Jaiñkoa ofensatu izanaz; baiñan, bethi trankill loseguan, eta khexagunerik gabe dagoelarik, damu hunek ez du, bere lehenbiziko obra onetara, bihurtzetik, gibelatzen, ez eta bere etsaiak, bentzutu dituen arterañokoan, perxegitzetik arrastatzen.

Oxala, orai erranik heldu naizena, ungi meditatua eta gogoan hartua balitz yende suerte batzuez, zeïñek nahi baitdute izpiritualak direla sinhets-arazi, eta Zeïñek zenbeit hutsetan erori diren ondoan, ez baitdute nahi, eta eziñ baitdukete nion errepausurik: aitzitik, khexagune

estranioetan baitdire, bere Directora gana goan nahiz; eta ondoan ez dute bertze xederik, baizen lasterago libratuak izan nahi bailukete bere amodio propialak kausatzen daroen, pena huntarik; hekiñ xede eta artha prinzipalak izan behar luken arren, Penitenziazko Sakramenduaz, bere buruak garbitu nahi izatea, eta Komunionen saĩnduaz, berriz ez erortzeko indarrak aiñtziñetik hartzea.

V. KAPITULUA

*Nola enganatzen diren haiñitz
presuna, zeïñek gogo urritasuna
hartzten baitute bertute batentzat.*

Enganio komun bat da oraiño bekhatu egiñ ondoan sentitzen den beldurtasun eta truble hori, bertute bat dela uste izatea. Ezen bekhatuari ondolik daraion khexagunea, nolazpaitere dolore eta damu zenbeitekiñ yuntatua den arren, ez da halarik ere sortzen urguilleriaren eta hantpurutasun gorde baten funtsetik baizen, zeñaren kausa baita, gure indarren gaiñean dugun, fidantzia sobraniazkoa. Noiz eta ere beraz, bertutean fiñkatua dela uste izanez, norbeitek tentazioneak mespresatzen baiditu, eta ezagutzen baitu experientziaz, bertzeak bezala, hutskorra eta bekhatorea dela; berehala bere bekhatuaz, gauza espantagarri batez bezala, suprenitzen da; eta nola bere sustengu guziak, erran nahi da, bere indarrak, iharrosiak eta egoztiak ikhusten baitditu, orduan abandonatzen dio

bere burua xagriñari, eta galtzen ditu esparantza guziak.

Ez zaiote ordean behiñere ondiko edo malhur hau gerthatzen, bere buruaz hantpurutzen, eta Jaiñkoa baitan baizen, fidatzen ez diren Arima onei eta humillei. Ezen bekhatu egiten dutenean ez dire, ez suprenitzen, ez eta trublatzen; zeren Egiaren klaritateaz argituak, ikhusten baitute, bere inkonstanziaren eta bere flakotasunaren efetu bat arribatu zaiela.

VI. KAPITULUA

*Bertze zenbeit abisu guziz
probetxosak, gure buruazko
ezfidantzia eta Jaiñkoa baitan behar
dugun fidantzia ardiets
dezakeguntzat.*

Nola gure etsaiaren bertzutzeko ditugun indar guziak, gure ahalen gainean batere ez fidatetik, eta Jainkoa baitan gure fidantzia guzia ematetik ilkhitzen bait dire; bertute hauk ardietskotzat oraino nezesario dire zenbeit abisu, zeinak uste baitut eman behar darozkitzudala.

Lehenbizikoa da, baxhotxak izpirituan ungi fiñkatzea, ez thalendu guziek, nahiz naturalek nahiz billduek, nolana hizkoak izan deitezen; ez gure proximoaren salba-arazteko gai diren grazia guziek; ez Eskritura saiñdu guzia gogoz yaki-teak eta haren sensua konprenitzeak; ez eta urthe haiñitzez Jaiñkoari errendatu diotzogun zerbitzu guziek hautarik deusek ere eziñ gai

errenda gaitzaketela Jainkoaren borondatea konplitzeko, eta gure egiñbideak bethetzeko. Baiki! Bothere guziak dituenak, aldi baxhotxean, bere eskuko indarrak borthiztu behar gaitu, nahiz obra on zenbeit egiteko dugunean, nahiz zenbeit tentamendu garaitu behar dugunean, nahiz zenbeit hirriskutarik athera behar dugunean, nahiz finean Probidenziak egortzen darokun zenbeit gurutze yasateko dugunean.

Egia hori beraz gizonak behar dio bere buruari, egun guzietz, oren guzietz, momentu guzietz proposatu, eta ez behiñere ahantzi: bide hortaz, urrunduko da hantpurutasunezko edo presumzionatezko biziotik, eta ez da nihoiz atrebituko bere indarren gainean, haiñ arrazoin gabe, fida-tzera.

Ordean jaiñkoa baitan esparantza are fermubago bat izan dezaguntzat, segurantzarekiñ sinhetsi behar dugu, etsai suerte guziak, errextasun berarekin, bentzutuko ditugula; nahiz nonbre ttipian, nahiz handian izan deitezen; flakoak eta tontoak bezain aiseki borthitzak eta sinezio-sak ere. Fundamen hunen arabera; Arima bat bekhatuz kargatua balitz ere; imayina edo asma

ahal deitezken bizio eta pasione guziak balitu ere; bertuteak pratikatzen eta bere bizioetarik korreyitza, orai arterano alferrik entsaiatu balitz ere; perfekzionean aiñtzina goan behar bidean, gaizkera pendura are gehiago egunetik egunera bere buruari sentitzen balio ere; ez luke hargatik Jainkoa baitan fidantzia izatetik gelditu behar, ez eta kuraiea galdu: aitzitik, nihoiz baiño are gehiago behar luke Jainkoa gana bere burua animatu eta sustatu, eta esei berriak eta doblatuak egiñ etsaia apartatzeko.

Ezen gudu suerte huntan, bethi bitoria eramaten da, armak eskuetarik ez uzteko bihotzik aski gelditzen denean, eta Jainkoa ganik gauza guziak igurikitzen direnean; zeñaren laguntza ez baitzaie behiñere faltatzen, haren alde gudukatzen direnei: aski maiz permetitzen du bada, etsai pean zenbeit zauri errezibi dezagun. Gudukatu behar dugu beraz azken hatseraiño: ezen hortik dependitzen da bitoria. Gaiñerakoan, Jainkoaren zerbitzuan gudukatzen denak, bere fidantzia guzia hura xoilla baitan ematen duenak, erremedia lausterrak eta efetuzkoak aurkhitzen ditu errezibitzen dituen zaurientzat; eta noi-

zetaere gutieñik uste baitu, eta orduan ikhusten du etsaia bere oiñera eroria.

VII. KAPITULUA

Gure indarrez eta gure ahalez egin behar dugun enplegu onaz; eta lehenik, gure izpirituak izan behar duela libro iñoranziatik eta kuriostasunetik.

Baldinetaria Gudu izpiritualean, ez bagindu bertze armarik, gure buruez ez fidatzea, eta Jainkoa baitan fidantzia izatea baizen; ez xoillki gure pasioneak eziñ bentzu giñetzake, baiñan oraiño maiz eror giñtezke huts eta bekhatu handietan. Hargatik haukiei yuntatu behar diotegu gure gorphutzeko eta gure arimako ahal guzien enplegu ona; zeña baita, perfekzionera arribatzekotzat, proposatu ditugun moien nezesarioetarik hirugarrena.

Has gaitzen beraz gure izpiritua eta gure borondatea erregelatzetik. Izpirituak garbi izan behar du bi bizio handitarik, eta ez da errex haukin gainean gardian egotea. Bata da iñorantzia; Hunek debekatzen gaitu egia ezagutzetik. Egia,

gure izpirituaren objekta da. Beraz, gure izpiritua okupatuaren fortsaz, argitu behar dugu, eta hango illhunbeak khasatu; halako maneraz bai, non ikhusi behar baitugu, zer egiñ behar den, gure arima bere pasione deserregelatuetarik garbitzekotzat, eta bertutez berregiñtzekotzat. Bada hau bi moienez egiten da.

Lehenbizikoa eta prinzipalena da Othoitza; zaiñetaz galdetzen baitzaizko Izpiritu Sainduari bere argiak: eta Izpiritu Sainduak ez diotzate behiñere errefusutzen, ziñ-ziñez Jaiñkoa billhatzen dutenei, haren Legea konplitzera entsaiatzen direnei, eta okasione guzietan, bere nau-sien yuiamenduari, bere yuiamendu propiala sumetitzen diotenei.

Bigarrena da, atenzione bethiereko bat, art-hoski eta fede onez etsaminatzekoa, ea, presentatzen zaizkigun gauzak, onak, ala gaixtoak diren; eta hetaz yuiatzeko, ez itxuraren arabera, ez gure sensuen edo munduaren arabera, baiñan Jaiñkoaren Izpirituak fornitzen darokun, opiniononearen arabera. Bide hortaz klarki ezagutuko dugu, Munduak hanbat pasionerekiñ maitatzen eta hanbat khexagunerekiñ billhatzen duena, ez

dela banokeria eta enganioa baizen; ohoreak eta atseginak, amets bat bezala iragaiten direla, eta iragan ondoan, arima urrikiz eta bihotzmiñez bethetzen dutela; laidoak, loriatzeko suiet batzu, eta nahigabeak, bozkariatzeke furtsa batzu direla; ez dela deus, nobleagorik, yenerosagorik Jainkoaren iduriko hobeki errendatzen gaituenik, nola baita, gure etsaiei barkhatzea, eta ungi egitea; hobeago dela mundua arbuiatzea, ezen ez munduaren nausi izatea; probetxosago dela, Jaiñkoaren amorea gatik, gizonetarik azkenekoa-ri obeditzea, ezen ez Erregeei eta Printzeei manatzea, zuhurtzia argituenaz gorago eta hautatzekoago dela, nork bere burua, ixilltasunean eta gorderik, ungi ezagutzea; Fiñean laudorio gehiago merezi duela, gauza xumeetan bere gutziak mortifikatzen edo matutzen dituenak, ezen ez Hiri hañitz hartzen, armada handiak desegiten, mirakuilluak obratzen, eta hilak ere pixten dituenak.

VIII. KAPITULUA

*Zerk gibela ahal gaitzaken, gauzez,
behar bezala, yuiatzetik: zer bidez,
hek ungi ezagut detzakegun.*

Orai mintzatu garen gauzez, eta bertze haiñtzez ere, behar bezala, yuiatzetik gibelatzen gaituena da hauxe: Gauzak izpiritura presentatzen zaizkigun bezaiñ sarri, berehala hekiñtzat hartzen dugu edo amodia edo higuñtza. Eta horlantan gure arrazoiña baiño lehen aditzen ditugu gure pasione itsuak; eta hauk halako maneraz gure begietan gauzak ganbiatzen badituzte, non, bere baitan direnez, osoki bertzelakoak iduritzen baitzaizkigu. Nork ere, beraz, nahi baitu bere burua gardatu, enganio haiñ komun eta haiñ perillosetik, haiñak atzarria egon behar du bere bihotzaren gaiñean artha haiñ handiarekiñ, non gauza edo objet batentzat ere, ez baitu bere bihotzean, afekzione ungi erregelaturik baizen, sofritu behar.

Baldin zenbeit gauza edo objet, begien aiñtziñera edo gogora ofreitzen bazaio, izpirituak hura behar du astiroki konsideratu eta etsamiñatu, borondateak bere partida hartu baiño lehen, edo hura maitatzeko, baldiñ agradagarria bada; edo hura higuintzeko eta apartatzeko, baldiñ itsusia eta gaxtoa bada. Ezen izpiritua, pasioneaz oraiño nausitua ez denean, gai da, trabarik batere gabe, gezurra ganik egia berezteko, eta itxurazko onaren kaparen azpian gordea den, gaitza, gaitz egiazkoaren aparantziarekiñ agertzen den onaren aldean, distiñgatzeko.

Baiñan borondatea edo bihotza, objetaz ukitua, haren maitatzen edo higuñtzen hasten den instant berean, izpiritua ez da gehiago gai, objet hura, den bezalakotzat, ezagutzeko; zeren pasioneaz estalia, eziñ baitduke hartaz pareza falsorik baizen; eta huna orduan zer gerthatzen den: Izpirituak objet hau, oraiño berriz, guzia bertze bat egiña, borondateari presentatzen dio, eta borondate, ia huntaz mobituak, hunentzako afekziona edo higuñtza doblatzen du; neurririk eziñ gehiago garda dezake; ez da gai ondoan arrazoiña aditzeko.

Desordena eta nahaskeria haiñ estranioaren erdian, izpiritua geroago eta gehiago illhuntsen eta goibeltzen da, eta bihotzari aiñtziñean, ematen dio objet hura, lehen baiño higuingarriotzat edo maitagarriagotzat. Horlatan, nik eman dudan erregela non ez den segitzen hagitz art-hoski, okasione hunelakoetan primia edo inportant den bezala, gure arimaren bi puxantza nobleenak, ustai batean bezala, bira-bira dabitza, eta badoaz enganiotik enganiora, illhunbetik illhunbera, erortzen dire lezetik lezera. Ala beraz dohatsuak baitire, kreatura batekiñ ere estekatuak ez direnak, eta mundu huntan gauza bat maitatu baiño lehen, maitagarria dirurien arren, aiñtziñetik nolakoa den ezagutzera entsaiatzen direnak; arrazoiñaren arabera hartaz yuiatzen dutenak, eta beregaiñki, yuiatzen dutenak Izpiritu sainduak ematen diotzoten naturaz goragoko argien arabera, nahiz Izpiritu saiñdua bere inspi-razionez miñtza dakioten, nahiz miñtza dadiñ, bere plazan ezarri dituen, Nausiez eta Buruzagiez.

Baiñan gardia emazu ungi: abisu hori zenbeit aldiz nezesarioago da, obra, bereganik onak

diren, ageri batzuetan, ezen ez bertze gutiago laudagarri direnetan; zeren hetan errexkiago tronpatzen baitgare, eta zeren hetara, khar sobrarekiñ eta diskrezionerik gabe, maiz goaten baitgare. Ez da beraz hautan itsuan engaiatu behar: Denboraren edo lekhuaren zirzkonstanzia bakhar bat negliyatu izanak, guziak kaltekor errenda detzakenaz geroz, eta aski denaz geroz, gauza, edo zeñ maneraz edo ez obedienziaren arabera, egitea, huts handietan erortzeko. Hori gauza frogatua da presuna haiñitzen etsenpluaz, zeñak galdu izan baitdire, pratika sainduetan bizi eta Ministerio sakratuetan enplegatuak zirelarik.

IX. KAPITULUA

*Bigarren gauza bat, izpirituak
nezesario duena, ungi
ezagutzekotzat zer duen
probetxosena.*

Bigarren bizioa, zeinatarik gure izpirituak libro izan behar baitu, da kuriostasun sobraniazkoa. Ezen gure izpiritua bethetzen dugunean pensamendu funts gabekoez, berez timioez, edo gaxtoez khentzen diotzogu, gutizia deserregelatu-
tuen zebatzeko edo mortifikatzeko propien diren gauzei lotzeko ahalak. Izan gaitezen beraz osoki hillak lurreko gauzentzat, eta ez detzagula billha, debekatuak ez izan arren, non ez diren baitezpada nezesarioak; Ez diozogula eman libertate guti-guti baizen gure izpirituari; ez diozogula permeti, banoki heda eta barbana dadiñ objet edo ikhugune hainitzetara; errenda dezagun hurren tontoa ezagutza mundano edo jaiñkozkoa ez den guzientzat; ez diotzogutela behiñere beharriak idek, dabililtzan berriei eta habarrotsei;

ihes egioguten, munduko gauzez miñtzatzeaz, bere atsegiña egiten dutenei; ametsak edo elheak balire baiño gehiago, ez gaitezela ukituak izan mundu huntan arribatzen diren gorabehera diferentez. Zeruko gauzez ere ximenki zerbitza gaitezen; ez detzagula goregi altxa gure pensamenduak; kontenta gaitezen, bethi eta bethi Jesus Gurutzefikatua begien aiñtziñean izateaz, haren Bizia eta haren Heriotzea yakiteaz, gure ganik zer nahi duen ezagutzeaz. Utz zatzigun gaiñerako guziak, eta gure buruak errenda tatzigun agradagarri Nausi dibino haren begietan: ezen haren Diszipulu egiazko direnek, ez diote bertzerik galdetzen, baizen eman diozoten zenbeit laguntza, bera ungi zerbitzatzeko, eta haren borondatea konplitzeko. Eta egiaz, huntaz landan, bertze desirkunde, bertze billhatze guziak, ez dire amodio propiala baizen, izpirituko urgulleria baizen, Deabruaren fiñezia eta arthea baizen.

Gisa huntan gobernatzen denak, gardatuko du bere burua Suge zaharraren maleziatik eta artifizioetarik, zeñak ikhusten duenean, bizitze izpiritualari kharrekin lotzen zaizten presunetan,

borondate fermu eta irauteko bat, atakatzen baitu izpirituaren partetik; izpirituak bihotza korronpi dezantzat: ondoan bien nausi errenda dadiñtzat. Nola ez baitu, hunelako presunen tronpatzea baizen, billhatzen; Satanek gogora ematen diotzote, Othoitzean daudezenean, pensamendu haltoak, sentimendu nobleak eta gizon ez goragokoak: bereziki baldin badire izpiritu kuriosak, xorrotxak, urguillusteko errexak, eta berehartuen gaiñean, bere ametsen gaiñean buru-gogortzeko gai direnak.

Etsaiaren deseñua da arrazoinamendu funts-gabekoetan luzero trika daitezen; eta errepausu falso batean sarthuak; Jaiñkoaz gozaten direla uste izanez; ez dezaten pensa bere bihotzak garbitu, bere buruak ezagutu, eta egiazko mortifikaziona bilhatu eta ardietsi behar dutela. Manera hortan urguilleria hanpatuak inspiratzen diote bere izpirituaz Jaiñko falso bat egitea, eta azkenean, bere sentimendu propiala baizen ez kontultatzeko kostuma hartuaren fortsaz, goaten dire imayinatzeroño, ez dutela gehiago behar ez nihoren konseillurik, ez nihoren gobernurik.

Hau, da eritasun bat, hagitx perillosa eta eziñ sendatuzkoa; zeren bihotzeko urguilleria baiño izpirituko urguilleria sendatzeko haiñitzez gaitzago baita: ezen gure Buruzagien ordenei borondatzei sumetiturik erremedio eman dakioke bihotzeko urguilleriari, izpirituak ezagutzen duenean. Bainan baldiñ norbeitek buruan gogorki hartzen badu, bere sentimenduak, buruzagienak baiño hobek dituela: nor izanen da gai eta kapable haiña enganiotik atheratzeko? nola ezagutuko du tronpatzen dela? nola sumetituko da bertzeren manua egitera; bere burua, bertze guziak baiño, argituagoa eta zuhurragoa daukanaz geroz? Baldiñ izpiritua, zeina baita gure arimaren begia, eta zeinak bihotzeko hanpagunea baxharrik ikhus eta senda baitdezake; baldin, diot, izpiritua eri bada, bera itsua eta urguilleriaz bethea bada; nor khausi dezake erremedio batere hunen eritasunarentzat? baldiñ eginai gailakutzen bada eta erregelatzat zerbitzatu behar zuen gauza, falsoa eta enganiosa bada, zer izanen da gaiñerakoez?

Beraz entsaia gaitezen, gure buruak bizio haiñ gaxto batetik, ahalik lausterrena, libratzera;

ezdezagula permeti phozoa dezan gure arimaren barrena; har-tzagun usantza, bertzeren yuiamenduari gure yuiamendua sumetitzekoa, Jaiñkozko gauzetan sobra zorrozki ez sartzekoa, Apostolu handiak hanbat gomendatzen duen sinpletasuna eta erhokeria maitatzekoa. Bide hortaz segurki, Salomon Errege zuhurra baño, konparazionerik gabe, are zuhurrago eta yakintsunago gure buruak errendatuko ditugu.

X. KAPITULUA

*Borondatearen edo bihotzaren
mobimenduez eta akzinez, eta zer
xedez egin behar ditugun gure obra
barnekoak eta kanpokoak.*

Izpirituko bizioetarik korreyitu garen ondoan, nezesario da korreyi gaitezen bihotzekoetarik, gure borondatea, bere pendura edo inklinazione propialari ukho egiñik, osoki molda edo konforma dadintzat Jaiñkoaren borondatearen gaiñean.

Beraz gardia emozu, ez dela aski, Jaiñkoari gehienik agradatzen zaioena nahi izatea, ez eta hura egitea ere; baiñan oraino, hunelako gauzak ere nahi eta egiñ behar direla. Graziaren mobimenduz, eta Jaiñkoari plazer egiteko lehiaz. Hontan dugu bereziki gudukatzeko naturalezaren kontra, zeinak bere nahiak haiñ borthizki billatzen baitditu, non gauza guzietan, eta zenbeit aldiz Jaiñkozkoetan bertzetan baiño are gehiago, bere plazera billhatzen baitu: eta hanbatenez

eskrupula edo kontzienziako har gutiagorekiñ, bere kontentamendua hautan aurkhitzen du, zenbatenaz ikhusten baitu, gaizkirik gabeak direla. Hortik heldu da, zenbeit obra oni lotzeaz kestione denean, berehala prest baitgare; ez jaiñkoa obeditzeko xede baxharra gatik, baiñan Jainkoak manatzen dituen gauzak egitean, batzuetan hartzen dugun plazer zenbeit dela kausa.

Enganio hau hanbatenaz da sotillagoa eta perillosagoa, zenbatenaz gure afekzionaeren eta gure gutizien objeta, hobeagoa baita. Nork sinhets lezake; amodio propialak, bera guzia phozotua eta biziotsua den arren, engatzen gaituela jaiñkoarekin gure buruak yuntatu nahi izatera? eta jaiñkoaz gozatzea desiratzen dugun denboran, maiz gure intresak billhatzenago ditugula, haren gloria eta haren nahia, plazera, edo borondatea baino? Bizkitartean jaiñkoa maitatzen, jaiñkoa billhatzen, jaiñkoaren legea, haltoki eta ageriki gardatzen dutenek, bere akzionetan ez dute bertze xederik batere izan behar, haren gloria eta haren borondate saiñdua konpli dadin baizen. Galtoki haiñ perillosetik urhun ibiltzeko,

eta Izpiritu Dibinoaren araberako gauzarik bai-
zen ez nahi izateko eta ez egiteko, eta hauk ere
bertze xederik gabe, baizen ohoratzeko Majesta-
te Soberanoa, zeñan gure akzione guzien hasta-
pena bezala, guzien azken fina ere izan nahi
baitu. Hortarakotz huna zeri gardia eman behar
zaioen.

Zenbeit obra on egiteko okasionea agertzen
zaikunean, ez diozogula gure bihotzari permeti
hura desiratzea, hari afekzinez lotzea; non ez
dugun aiñtziñetik gure izpiritua Jaiñkoa gana
altxatzen; yakitekotzat, beti nahi duen hura egiñ
dezagun; eta ikhustekotzat, ea xoillki, zeren den
Jaiñkoari agradatzen zaioena, desiratzen dugun.
Eta horra nola gure borondatea, Jaiñkoaren
borondatea aiñtziñean eta erregelatzat harturik,
lehiatuko den maitatzera hark berak maitatzen
duena, xede xoill huntaz: haren Borondatea
osoki konpli, eta haren Gloria handi edo berreth
dadiñtzat. Orobat egiñ behar da, Jaiñkoak nahi
ez dituen gauzetan ere: ezen hunelakoak arbuia-
tu eta utzi baiño lehen, gisa berean gure izpiritua
haren gana alxatu behar dugu; haren nahia eza-

gutzeko, eta nolazpaitere segur izateko, hek arbuizatzean, Jaiñkoari plazer egiten diogula.

On da ordean yakitea, gaitz dela deskobritzea gure naturaleza gaxtoaren artheak; zeren hunek, aitzekia edo estakuru ederren azpian, ez baitu behinere bere nahia baizen billhatzen, sinhets-arazten baitdaroku, ez dugula bertze xederik, gure akzione guzietan Jaiñkoari plazer egiñ diozeken zerbeit, egitea baizen. Hortik heldu da gure buruak kontentatzeko deseñu xoillarekiñ maitatzen, edo higuñtzen dugun gauza bat, uste baitugu maitatzen, edo higuñtzen dugula, Jaiñkoari agradagarri izanen zaiuelako desiraz, edo hari pena eta damu egiñen dioelako beldurrez. Gaitz hunen erremedio segurana eta nezesarioena da bihotza garbi atxikitzea. Hau da, Gudu izpiritualean engaiatzen direnek, xedetzat eta motibotzat bere buruei proposatu behar diotena, Gizon zaharraz (*bekhatuaz*) billuzirik, Gizon berriaz (*inozenziaz*) bestitzekotzat.

Huna gure buruei haiñ erremedio soberanoa aplikatzeko moldea: Gure akzioneak hasten ditugunean, entsaiatu behar dugu, naturalezak eta gizakeriak hartan sar-araz dezaken xede guziak

apartatzera eta khentzera, eta deus ez maitatzera, deus ez higuñtzera, Jaiñkoaren orhoitzapen xoilla gatik baizen. Baldiñetaria ez badugu sentitzen, bethi ordu berean, xede hau badugula, egiten ditugun obretan, bereziki bihotzeko mobimendu eta akzione berehalakoetan, entsaia gaitezen, nolazpaitere aurkhi-araztera guzietan, eta kontserba zagun gure arimaren barrenean Jaiñko xoillari plazer egiteko deseñu egiazko bat. Baiñan luze irauten duten akzioneetan, ez da aski gure intenzionea xede huntaz alxatzea, oraño xede bera maiz erreberritu behar da eta entretenitu edo xut atxik-arazi bere garbitasunean eta bere berotasunean. Hori gabe, hirrisku handitan giñtezke, amodio propialaz gure buruak itsutzera uzteko, zeññak, Kreatzaillearen gainean kreaturari gauza guzietan hautua emanik, komunzki lilluratzen baigaitu; halako gisaz non, denbora laburrik artean eta hurren sentitu gabe, ganbiatzen baitugu intenzionea eta objektu.

Gizon galant batek, ordean bere gardien gainean egoteko artharik aski ez duen batek, hasiko du gehieñean bere akzionea, Jaiñkoari plazer

egiteko baizen, bertze xederik gabe; baiñan segidan, baratxe-baratxe eta pensatu gabe, uzten dio bere burua gloria banoari hartzera. Eta horra nola, lehentxeago xedetzat zuen, Jaiñkoaren borondatea ahanztera utzirik, estekatzen zaion akzioneeran hartzen duen, plazer xoillari, eta ez dioen behatzen bere lanari, handik heldu zaion probetxuaren eta gloriaren partetik baizen.

Baldiñetaria, noizere uste baitu bere obra hobekienik akhabatzera dohala, Jaiñkoak trabatzen badu hasi duena kontinoatzetik, nahiz zenbeit eritasun egorririk, edo permetiturik norbeit tek lan hura utz-araz diozan; orduan guzia miñtzen eta inkietatzen da, marmaratzerañokoan, orai hunen kontra, gero haren kontra, eta batzuetan Jaiñkoa beraren kontra ere. Hortik ageri da klarki, haren intenzionea ez zela behar bezalakoa, eta funts gaxtotik ilkhitzen zela, Ezen Graziaren mobibenduz, eta Jaiñko xoillari plazer egiteko deseñuz dohanak, ez du lan batentzat amarra edo afekziona gehiago bertze batentzat baiño; eta baldiñ zerbeit desiratzen badu, ez du pretenitzen hura izatea, Jainkoak nahi duen mol-

dean eta hark nahi duen denboran baizen, bethi da haren Probidienziaren ordenei sumetitia, bethi kontent eta deskansuan, nolana burutara dakizkon bere deseñuak; zeren gauza bat baizen ez baitu billhatzen, zeña baita: Konpli dadilla Jaiñkoaren Borondatea.

Sar bedi beraz baxhotxa bere baitan, eta izan beza artha bere akziane guziak bihurtzeko xede haiñ noblearen eta haiñ perfetaren aldera. Eta baldiñ batzuetan bihotzak hunela galdetzenez, sentitzen baditugu gure buruak obra onak egite-
ra ekharriak Ifernuko penei ihes egiteko edo Zeruko gloria merezitzeko motiboz; haukietan ere, har dezakegu, gure azken xedetzat, Jaiñkoari obeditzea: ezen Jaiñkoak nahi du Zerua irabaz dezagun eta Ifernuari ihes egiñ diozogun. Eziñ sinhetsi bezain handia da motibo edo intenzione hunen bertutea; zeren gure obra xumee-
nek, likhitsenak balire ere, phuruki Jaiñkoa gatik egiñak direnean, haiñitzez gehiago balio baitute, ezen ez bertze xedez egiten diren akziane haiñitzez merezimendu handitakoek eta hobeagoek. Arrazoin hau dela kausa, Amoiña xume bat, Jaiñkoaren Gloria xoillagatik pobre bati emana,

Majestate Dibinoari, konparazionerik gabe, agra-dagarriago zaio, ezen ez, bertze zenbeit moti-boz, uzten eta abandonatzen bagiñtu gure on eta ontasun guziak: hau egiten bagindu ere Zeruko dohatsutasunaren esparantza dela kausa; motibo hau den arren bere baitan laudagarria, eta hunek merezi duen arren, nork bere buruari proposa diozon.

Xede huntaz, erran nahi da, phuruki Jaiñkoari plazer egitekotzat, gure akzione guziak egiteko usantza saiñdu hau, lehenbizian aphur bat gaitza idurituko zaiku; baiñan denborarekiñ errex, eta gozo ere, errendatuko dugu, baldiñ gure bihotz guziaz Jaiñkoa billhatzeko usantza hartzen badugu; baldiñ bethi eta bethi suspiraz egoten bagare, haren gana beharrez, gure ontasun bakharraren eta soberanoaren gana bezala, zeñak, bere baitarik, merezitzen baitu, gauza guzien gaiñetik, kreatura guziez billhatua, preztua, eta maitatua izatea. Zenbatenaz yarriko baitgare konsideratzen, zeñ handia eta gozoa den gure Jaiñkoa, hanbatenaz gure bihotzeko afekzioneak objet dibino harentzat izanen dire husuagoak eta amulsuagoak edo amodio han-

diagokoak. Manera hortan errexiago eta lausterrago ardietsiko dugu, haren gloria gatik, gure akzione guziak egiteko usantza egunorozkoa.

Orai arterañoeko moienei yuntatzen diotet azkeneko moien bat, xede guziz exselent eta yaiñozko hunekiñ baizen deus ez egiteko: eta moien hau da, Jaiño berari grazia hau, othoitz humillez eta khartsuez galdetzea; eta maiz kon-sideratzea haren, gure alderako, ungi egiñ non-bre gabekoak, eta momento guziez, amodio phuru eta osoki desintresatu batez, oraiño egi-ten darozkigunak.

XI. KAPITULUA

*Zenbeit konsiderazione, gure biho-
tzak hertxa detzaketenak deus ez
nahi izatera, Jainkoak nahi duena
baizen.*

Gure bihotza errexkiago obliga-araztekoztat, deus ez nahi izatera, Jainkoak nahi duena bai-zen, eta haren gloriarentzat diren gauzarik bai-zen; orhoit gaitezen, milla manera suertez, bera lehenik ekharria izatu dela, gu maitatzera eta ohoratzera, eta hori efetuz agertu duela. Berak ezdeusetik athera gaitu, bere iduriko egiñ eta kreatu gaitu, eta egiñ ditu bertze kreatura guziak gure zerbitzuko. Berak, egorri nahi izan duenean Erredemtore edo Arrerostzaille bat ego-rrri daroku, ez Aingeru bat, baiñan bere Seme baxhotxa, zeinak arrerosi edo erresketatu baitu mundua, ez *urreea eta zillharra emanaren fortsaz, zeinak baitdire gauza iragankorrak; baiñan bere Odol preziatuaren gostuz*, eta bere Heriotze, ez gutiago laidotsuaz, nola doloretsuaz eta krude-

laz. Bera da fiñean orai ere instant guziez gure etsaien errabiatik gardatzen gaituena; gure orde bere graziaz gudukatzen dena; gu naurritzekotzat, eta denbora berean defendatzekotzat, bethi prest dagoena Mahaiñ saiñduan guri ematera bere Semearen Gorphutza.

Ez othe dire bada horiek, lekukotasun segurak, Jaiñko amulso hark handizki prezatzen, eta bihotz guziaz maitatzen gaituela? Nork konpreni dezake noraraño dohan gu garen bezaiñ kreatura erromes eta ezdeusentzat duen amodio sobraniatzkoa; eta beraz, izan ahal daiteken Ungi-egillerik frankoenarentzat behar dugun ezagutzak, norarano ordaiñez goan behar duen? Baldinetaria Yende handiek, bere buruak ohortuak ikhusten dituztenean, berak baiño beherago edo sortzeak edo fortunak ezarri dituen presunez, baldiñ, diot, haiñek uste badute obligatuak direla berak ere haiñen ohoratzera; zer ohore ez diote Lurreko har ezdeusek errendatu behar mundu guziaren Yabe soberanoari, bere afekzionatearen eta bere estimuaren markak, hanbat moldez ematen dioztenari? Bertze gauza guzien gaiñetik, ez dugu behiñere ahanztera utzi

behar, Majestate hunek merezitzen duela zerbitzua izatea, xede prinzipaltzat eta lehenbizikotzat hartzen dugularik Amodio phuruena, zeña baitatza deus ez billhatzean, Jainko xoillari plazer egitea baizen.

XII. KAPITULUA

Gizonaren baitan badirela borondate bat baiño gehiago, bata bertzearekiñ gerlan hari direnak.

Badire gizonaren baitan bi borondate, bat da borondate gaiñekoa edo nausia deitzen dena; bertzea da deithua borondate azpikoa edo sehia: explikatzen naiz. Lehenbizikoa komunzki deitzen da *Arrazoiña*. Bigarrenari haiñitz izen ematen zaizko; hala nola *Gutizia, haragia, sensualitatea, Pasionea*. Guziarekiñ nola, yustuki mintzatzera, ez baitgare Gizonak, Arrazoiñaren medioz bai-zen, gauza bat nahi dugula eziñ erran diteke, sensuen penduraren mobimendu berehaleko batez, gauza hura nahi dugunean; non ez duen borondate nausiak edo Arrazoiñak ondoan, gauza hura bera nahi izaten, edo laudatzen, edo beretsten.

Horren gatik ere gure Gudu izpiritual guzia datza huntanxe: Gure Arrazoinaren borondateak, badu Nausitzat Jaiñkoaren Borondatea, eta

Sehitzat edo bere azpikotzat, sensuen pendurak edo gutiziak: bien artean bezala ezarria, bi alde-tarik hurren higualki gudukatua da; zeren Jaiñko-ak alde batetik, eta haragiak bertzetik, erlaxarik eta sosegurik gabe, premiazen baitdute; eta bere ahal guziak egiten baitituzte, hura bakho-txak bere sentimendura eror-araztekozat. Horra zerk pena eziñ konzebituzkoak sofri-arazten dio-tzoten haiñei, zeñek, bizioaren hazkuntza edo habituda gaxtoak gaztetasunean bere baitan ohitu ondoan, noizbait hartzen baitute boronda-te fermu bat Jaiñkoaren zerbitzuari, osoki eta ziñ-ziñez lotzekoa; bere bizia ganbiatzekoa; bere haragia hezitzekoa edo zebatzekoa; eta fiñean Munduarekiñ haustekoa. Orduan hekiñ bihotza hagitz borthizki atakatua da denbora berean, Jaiñkoaren Borondateaz eta Manuez, eta sen-suen gutiziez eta plazerez: eta noranahi itzul dadiñ, haiñ asaldu muthiriei eziñ, nekhez baizen, buruegiñ diozokete.

Gudu edo gonbat hori ez zaiote gerthatzen, ya denbora duela bertute pean edo bizio pean egun oroz bizi ondoan, bere partida hartuak, ordu arterañoan bezala, bethi bizi nahi dute-

nei. Ezen batzuek, erran nahi dut, Arima onak, Jaiñkoaren Borondatearen arabera bethi bizitzen dire; eta bizioz phozoatuak direnek uzten dituzte bere buruak sensuen arabera goatera. Baiñan ez beza nihork ere uste izan bertute egiazkorik ardiets dezakela, eta Jainkoa behar bezala zerbitzatuko duela, non ez duen fiñki deliberatzen, bere buruari bortxa egitea, eta munduko plazer guziei ukho egitean aurkhitzen den gaiztasuna bentzutzea; ala plazer hek izan deitezen handiak, ala izan deitezen ttipiak, Jaiñkoa mortalki ofensatzerañoko amodio bat haiñentzat baldiñ izatu badu.

Hortik heldu da, haiñ gutiak baitdire, perfezioneko gradu gorara igaten direnak: ezen bizio handienak garaitu ondoan, nekherik handienak yasan ondoan, bihotza eskasten zaie, eta bere buruak bentzutzen bethi ezin iraun dezakete; asaldu xumerik baizen, ez duten arren yasateko, ukho egitekotzat bere amodio propialaren zenbeit hondar flakori, eta bere baitan ithotzekotzat haiñitz pasione xume, zeñak, egunetik egunera borthiztuak goatenez, azkenean osoki errendatzen baitire gure bihotzen nausi.

Hunelako presunetarik haiñitzek ez dute, konparazionera, bertzeren ontasuna ebasten; baiñan berea pasionerekiñ, itsutuki, zikhinki maite dute. Munduko ohoreak ardietstekotzat ez dituzte enplegatzen zilhegi edo permis ez diren bideak, baiñan ohore baño hei, egiñ behar liokten bezala, ukho egitetik urhun, maiz ohore hek desiratzen dituzte, entsaiatzen ere dire hek beretzera, zilhegi zaizkoten moienez. Lohikeria edo paillardiza guzietarik apartatuak eta garbi dire; baiñan badatxaizko bertze zenbeit plazeri, zeñak haiñitz trabatzen baitditu bizitze izpiritualako eginbidetarik, eta Jaiñkoarekin hertsiki yuntatuak izatetik.

Nola ordean gauza hauk danyerosak baitire presuna suerte guzientzat, eta beregainki haukien ondore tristen beldur ez direnentzat, bakho-txak asma dezaken ahal guzia enplegatu behar du, haukiei ihes egitekotzat: non ez, imposible da gure obra on gehienak ez detzagun egiñ ephelki, eta ez detzagun haiñitz nahasteka amodio propialarekiñ, Munduaren beldurrarekin, hainitz imperfekzione gordekin, gure buruazko gloriarekin, ikhusiak eta Munduaz laudatuak izateko

desirarekiñ. Pontu hunen gaiñean atzarriak ez direnak, ez xoillki bere salbamenduko bidean ez dire batere aintziñatzen, baiñan oraiño gibela dohaz; eta hirriskutan dire, bere bizio zaharretara erortzeko: zeren ez baitdatxezko bertute solido edo segurari, guti sentitzen baitute, Deabruaren gathetarik libratzean, Jaiñkoak egiñ dioten Grazia; ez baitute sentitzen ere bere estatu gaxoa; eta beraz bethi lokhartuak baitdaudez bake falso, eta sosegu enganios batean.

Hemen aproposki miñtza gaitezke enganio hanbatenaz beldurtzeko batez, zenbatenaz baita deskobritzeko gaitzagoa. Bizitze izpiritualari eta Jaiñkozkoari lotzen zaizten giristiño haiñitzek bere buruak sobera maite izanez, (gezurra den arren hainek bere buruak maite dituztela), plazerik gehiena egiten diozten praktikak edo debozio-neak hautatzen dituzte, utzirik bere gogarako ez zaizkotenak, bere inklinazione naturalei kontra egiten diotenak, bere pasione itsusiak mortifikaraz liotzoketenak; pasione batzu, zeñen kontra bere indar guziak enplegatu behar bailituzkete Gudu izpiritualean. Hunelako presunak ezin asko exhorta daitezke, maita dezatela, arren, pasione

hekien garaitzean hartzen duten pena edo nek-hea, zeren hekien on guzia hortarik baitdoha: eta zenbatenaz irakhutxiko baitute kuraie gehiago, bertutea pratikatzean edireten diren traba lehenbizikoak bentzutzekotzat, hanbatenaz izanen baita hekien bitoria seguragoa eta lausterragoa. Baldiñetaria hauxe gogoan xoillki hartzen badute: Gerla huntan ziñki eta fiñki travaillatu nahi dutela; baldiñ yeneroski eta azkarki lotzen bazaizko lanari, eta ez badiote, bitoriari eta bitoriaren fruituei, zeñak baitire Bertuteak; lausterreri behatzen, gogoan duten deseñu on eta saiñdua are segurkiago eta errexkiago haiñek konplituko dute.

XIII. KAPITULUA

Nola behar diren gudukatu eta zebatu gure sensuen pendura gaxtoak: eta nolako akzioneak egiñ behar dituen gure borondateak edo bihotzak, bertuten habitudak eta usantzak beretzeko.

Sentitzen dugunean Jaiñkoa eta Haragia, gure bihotzean elkarrekin borroka hari direla, bietarik zein nausituko den; huna, bitoria Jaiñkoaren aldera eror-arazteko, hartu behar ditugun moienak.

1. Gure sensuetako lehenbiziko mobimenduak, adimenduaren edo Arrazoiñaren kontra altxatzen diren instant berean, hek apartzeko eta ithotzeko artha izan behar da, borondateak edo bihotzak bere konsentimendua eman diozoten beldurrez.

2. Mobimendu hek itho eta phazegatu direnean, utz daitezke berriz pixtera, lehenbizian

baiño are indar gehiagorekin hek gudukatzeko okasionea bigarren aldi batez izatekotzat.

3. On da oraiño, hirugarren aldi batez, mobimendu hek kolpekara ekhar-araztea; mesprezio yeneros batekin hek hastantzeko kostuma hartzekotzat. Gardia emogun ordean, bere pasione propialak nork bere baitan tarritatzeko bi molde hauk, ez direla behinere frogan eman behar pailardizaren mobimenduetan zeñetaz Liburu huntan beregaiñ mintzatuko baitgare bertze lekhu batean.

4. Finean baitezpada inportant da, utzi eta khasatu nahi ditugun habituda gaxtoei kontra dohazen bertuten akzioaneak egitea. Huna etsenplu bat egia hau klarki frogatuko duena.

Txartasunezko edo inpazienziatzko mobimenduez higitua eta tentatua bazare, sar zaite zure baitan, eta konsidera zazu zure barrenean iragaten den guzia. Dudarik gabe ikhusiko duzu, zure sensuetan sortzen hasi den txartasuna, bihotzeraño igatera entsaiatzen dela, eta zure arimaren parterik gorena, zeñña baita konsentimendua, beretu nahi lukela. Orduan, orai eman darotzudan lehenbiziko konseilluaren arabera, egizu

egiñ ahala, aiñtziña goatera ez uzteko, eta ez dadiñ bihotza lerra. Ez detzatzula, gardia huni, armak eskutik utz, non ez duzun zure etsaia (erran nahi da txartasuna) ostikatua eta ithoa, obliga-arazten sumetitua egotera Arrazoiñaren azpian.

Ordean erremarka zazu Izpiritu gaxtoaren fiñezia eta artifizio kaltekorra! Zenbeit pasione suharri kuraioski kontra-egiten diozula Satanek ikhusten duenean, ez xoillki gelditzen da haren mobimendurik zure bihotzean altxa-araztetik; baiñan oraino hek nolazpait pixtuak aurkhitzen dituenean, bera entsaiatzen da bere ahal guziaz mobimendu hek zure baitan, denbora guti batentzat ithotzera eta arrastatzera. Orduan ez du bertze deseñurik, baizen zu gibelatzea, bizio hari kontra egiten dioen bertutea, bitoria husuez, ardietstetik, ondoan banitatezko sentimenduak zure bihotzean sor-araztea, sinhets-arazten darotzularik, soldadu kuraios batek bezala, denbora laburrik artean zure etsaia bentzutu duzula. Behar duzu beraz bigarren aldi batez borroka hari: hortarakotz izpiritura erakharri behar dituzu inkietatu zaituzten pensamen-

duak; eta noizetere zenbeit mobimendu altxarazi baitute zure sensuetan, berehala zure Arrazoiñaren indar guziak enplegatu behar ditutzu hauk berriz urhutzeko eta ithotzeko.

Baiñan nola maiz gerthatzen baita, *ustez obligatuak garela eta Jaiñkoari agradatzen zaio-la gure ahal guziak egiñ ondoan etsaia urhutzeko*, nola maiz, diot, gertatzen baita, hirugarren gonbat batean bentzutuak izateko hirriskutik ez baitgare kanpoan; oraiño berriz ere gudura bihurtu behar dugu gure bihotza bethikotz garbitu nahi dugun bizio haren kontra; harenzat ez xoillki herra saiñdu bat konzebi dezaguntzat, baiñan oraiño hura mespresatzekotzat, eta hartaz latzduzarekin orhoitzekotzat.

Fiñean zure arima bertute haiñitzez berregiñtzeko, eta bertute hekien usantza saiñduak zure baitan fiñkatzeko, ageriki egiñ behar ditutzu haiñitz akzione, zure pasione deserregelatuei kontra dohazkotenak; Konparazionera: Baldiñ nahi baduzu ardietsi egiazko eztitasun perfet bat, zu mesprezatur ematen darozkitzuten txartzeko edo koleratzeko okasionetan, ez dezazula uste izan askiko dela, orai mintzatu garen hirur arma

suerteak enplegatzea tentazioa garaitzeko; behar duzu oraiño onetsi, zutaz egiten duten, mesprezioa; behar duzu oraiño desiratu orobat eta yende berez mesprezaturia izatea; behar duzu fermuki deliberatu afruntu eta laido handiagoak oraiño sofritzera.

Huna zergatik eziñ bertutean perfet izan gaitzeken, korreyitu nahi ditugun bizioen kontrako akzionarioak non ez ditugun egiten: Zeren bertze obra on guziek indar eta efetu hagitz handiak dituzten arren eta nonbre handian egiñik ere, ez baitdezakete gaitza erroetarik athera. Hala nola, *ekharri dugun etsenplua ez ganbiatzeko*, mesprezaturia zarenean heldu zaizkitzun kolerauko mobimenduei konsentitzen ez diozuten arren, aitzitik, erran dugun maneran hek gudukatzen ditutzun arren; yakin zazu halaere, baldin ez baduzu usantza hartzen, hiroiak eta laidoak maitatzekoa, hetaz bozkariatzekoa, ez duzula niholere zure bihotzetik khenduko, txartasunezko bizioaren azkeneko erroa, baldiñ bizio hori zure baitan altxatzen bada munduaz mesprezaturia zarelako beldurtasun sobraniazko batetik, eta munduaz estimaturia izan nahizko desira mugarri-

gabe batetik. Eta egiaz, zure ariman erro mada-rikatu hori dagoeiño, aldaska bethi aurthikiko ditu, eta zure bertutea flako eta illhaun egonen da; eta menturaz denborarekiñ bertute guziaz gabetua aurkhituko zare, eta hirrisku kontino batean, zure inpazienziatzko desordena iragane-tara, berriz dohakabeki erortzeko.

Ez dezazula beraz esparantzarik izan, behine-re ardiets dezakezula bertute solidorik, baldiñ bertute hek berak, husu eta maiz, zure akziones-tan agertuz, hekien kontrako bizioak ez baditu-tzu urratzen. Erran dut, husu eta maiz: ezen nola, biziozko habituda bat badugula seguratzeko bekhatu berean erori behar baita; orobat bertute batetik haiñitz akziones egin behar ditugu, gure baitan formatzekotzat bertute haren usantza edo habituda saildu bat, berenez perfecta dena, eta bizioarekin ezin konpuntu daitekena: eta oraiño bertutezko akzionetarik nonbre handiago bat behar da habituda saildu bat formatzeko, ezen ez bekhatuetarik hazkuntza biziotsu baten egiteko; zeren natura korrumpituaren indarrak bethi borthizten baitu gaizkirako usantza, eta bethi flakutzen ungirakoa.

Atenezione egiozu oraiño huni: Baldinetaria pratikatu nahi duzun bertutea eziñ ardiets badi-teke non ez duzun bihotzeko sentimenduen araberako zenbeit akzione kanpora agertzen, hala nola gerthatzen baita pazienziatzko bertutean; behar duzu, gaizki tratatu zaituen presunaz, zer nahi den maneraz gaizki tratatu zaituen, behar duzu, haiñaz ez xoillki karitaterekin eta estimu-ekin mintzatu, baiñan oraiño behar diotzotzu haiñari egin ahal zerbitzuak errendatu. Eta bihotzean ditutzun sentimendu on hauk, edo kanpora agertzen ditutzun akzione hauk aphurrak direla iduritzen bazaizkitzu ere, eta herabetasunekin, uzkurki, eta osoki gogo-gaxtoz egiten ditutzula; begirautzu halere ez detzatzun negliya; zeren, guziz aphurrak diren arren, Guduan borthiztuko baitzaituzte, eta moien botheretsu batzuz izanen baitditutzu bitoria eramatekotzat.

Zaren beraz atzarria zure bihotzeko mobimenduen gainean, eta ez zaitezela kontenta pasionen mobimendu borthizenak ithotzeaz; ithoetzatzu ttipienetarañokoak ere; zeren komunzki xumek handietara baitgaramatzate, eta ondoan handiek sor-arazten bait dituzte gure baitan

bizioen usantzak edo habitudak. Gauza frogatu bat dela badakigu, haiñitz presunek, okasione xumexkoetan bere pasioneak mortifikatu eska-sez, (hek handienetan mortifikatzeko kuraiea izatu zuten arren), badakigu, diot, gutien pentsatzen zutenean, egundaiño baiño borthizkiago atakatuak izatu direla erdi garaituak ziren etsaiez.

Badut oraiño zuri emateko premia handitako abisu bat: zure gutiziak mortifikatu edo itho behar dituzu, permis diren gauzetan ere baitezpadakoak ez badire. Hortarik haiñitz irabaziko duzu; geiago izanen zare zure burua gauza debekatueta bantzutzeko; tentazionen kontra borthitzago, atzarriago, fiñago errendatuko duzu zure burua, eta denbora berean agradagarriago Jainkoaren aintziñean. Ziñ-ziñez mintzo natzaitzu: ez zaitezela, arren, unha obretan ematen, orai irakhatsi darozkitzudan pratika saindu hauk, zeñen beharra baituzu zure bihotz korronpitua onera ganbiatzeko. Bitoria glorios eta konpli bat zure pasionen gainean eramane duzu; Bertutean haiñitz aiñtziña goanen zare denbora laburrik artean, eta zure burua Jainkotar eta izpiritual

errendatuko duzu, ez xoillki izenez eta munduaren mihietan, baiñan oraiño izanez, egia eta Jainkoaren begietan.

Baldin bertze biderik hartzen baduzu, exsulentak eta hoberenak direla iduritzen zaizkitzun arren, hetan Jainkozko delizio handiak hartzen baziñtu ere; Jaiñkoarekiñ hertsiki yuntatzen zai-tuztela uste baduzu ere: zaren osoki seguratu-a, ez duzula sekulan ardietsiko bertute solidorik ez duzula yakiñen ere, zer den egiazki Izpiritual izatea, zeña, lehenbiziko Kapitulan erran izan dugun bezala, ez baitatza pratika edo obra ezti eta naturaleza lausengatzen dutenean, baiñan bai gure bihotza eta gure gorphutza, bere pasio-nekin eta bere gutizia arrazoiña kanpokoekiñ, gurutzefikatzean.

Horra nola Giristino bat bere barrenean erre-berritua beretu dituen bertutez, nola azkenean yuntatzen den bihotzez edo barrenki bere Krea-tzaillearekin eta bere Salbatzaille Gurutzean itzatu denarekin. Horra zergatik ezin duda daiteken, gure bihotzak, hainitz aldi diferentez, gorphutzari eta sensuei amor emanik, biziozko usantzak edo habitudak gure baitan formatzen

diren bezala; gisa berean gure borondatea Jainkoaren Borondatearen gaiñean, haiñitz aldi diferentez, moldaturik, ardietsten eta geuretzen ditugun guristiñozko bertuteak. Ezen Jainkoaren Graziak edo Borondateak intzitatzen eta gonbidatzen du gure Arima, orai bertute batera, gero bertze batera. Ordean nola borondateak edo bihotzak bekhaturik eziñ egiñ baitdezake (gaxtarazteko zer nahi den gorphutzak edo sensuek egiñ dezaten), non ez dioen gaizkiari konsentimendua ematen; orobat eziñ izan daiteke saildu eta Jainkoarekin bat-egiña (hura Jainkoa gana tiratzeko, Graziak bere indar guziak enplegatzen balitu ere), non ez den Grazia berarekin konsentimendu oso batez yuntatzen, ez xoillki bihotzeko mobimenduetan, baiñan oraiño, behar bada, kanpoko akzione ageri direnetan ere.

XIV. KAPITULUA

Zer egiñ behar dugun gure borondatea edo bihotza garaitua izateko menean denean, eta gai ez denean sensuen biolenziari kontra-egiteko.

Baldiñ zenbeit aldiz iduritzen baizazu zure borondatea flakoegia dela, zure sensuen suliari, eta zure bihotzaren gaiñean nausitu nahi duten bertze etsaiei kontra-egiteko; eta baldiñ, ordu hartan, ez badiozu zure buruari sentitzen kuraierik eta tiesotasunik asko, hekin atakadei buru-emateko: halarik ere zaude tiñko zure lekhuari, hari zaite bethi borroka, ez zohazela gibela, seguraturua bitoria eraman duzula, non ez zaitzun iduritzen osoki benzutua zarela. Eta egiaz, nola zure bihotzak ez baitu nezesario, sensuen guti-ziak kontentatzea, nahi duen aldera itzultzeko; halaber, berekin dakharken etsai hunen partetik zer nahi den yasan dezan, bethi oso-osea konserbatzen du bere libertateaz baliatzeko ahala.

Ezen Kreatzailleak eman dio gure bihotzari bot-
here eta nausitasun haiñ osoa, non sensu eta
menbro guziak, Deabru guziak, gauza kreatu
guziak elkharrekiñ yuntaturik haren kontra altxa-
tzen balire ere, deusek ez bailezake traba, nahi
duena egitetik, edo nahi ez duena egin gabe
uztetik: eta hori, nahi duen aldi guzian, eta nahi
duen bezaiñ denbora luzean, bai eta oraiño on
iduritzen zaion xedea gatik, eta plazer duen mol-
dean.

Baldin batzuetan tentazioneak hersten bazai-
tu huntarañokoan, non flakatua eta hurren ben-
tzutua, zure borondateak baitdirudi ez duela
behar den indarra, hari kontra-egiteko; begirau-
tzu halere animoa gal, edo armak eskuetarik utz.
Egizu bederen deihagora; eta defenda zaite Ten-
tatzailleari edo Satani erraten diozularik: Satan
aparta hakit; ezen hire linburkeria infamei kon-
sentituko diotedan baino lehen, milletan neure
burua hilltzera utziko diat. Egizu bihotz handita-
ko gizon batek, ezpatan hari denean etsai bort-
hitz batekiñ, elkhar gana sobera hurbildu izanez,
bata bertzeari lephotik lotzen zaizkonean, egiten
duen bezala: eziñ haren gorphutzean ezpataren

punta sartuz, ahal duen parte guzietan yotzen du ezpataren eskutokiaz: ikhus zazu nola hari den borroka, bere burua libratu beharrez; nola goaten den zenbeit pausuz gibela eta gero nola yauzi egiten duen bere etsaiaren gaiñera, huni heriotzeko kolpea ematekotzat. Ikhas azu zuk ere orobat maiz zure baitan sartzen; konsideratzekotzat zure funtsetik ez zarela deus, eta deus ez daikezula; ondoan zure burua kuraiatzekotzat Jainkoaren Bothere guzizkoan fidantzia oso bat ematera; eta finean, haren graziarekin batean, atakatzekotzat eta garaitzekotzat nausitu zaitzun pasionea. Orduan erran behar duzu: Lagun nazazu, ene Jaiñko Jauna, lagun nazazu: Iesus eta Maria hel zakizkitet, ez nazazuela, ni zuen zerbitzaria, abandona edo ene menera utz, eta ez dezazuela permeti tentamendu gaxto hautan eror nadin.

Ordean etsaiak astia uzten badarotzu, oihu egiozu zure Arrazoiñari edo Adimenduari, arren, dathorrela zure bihotzaren edo borondatearen laguntzera; borthitz zazu zure burua haiñitz konsiderazione, kuraiea pitx-arazteko eta gonbatara animatzeko, gai eta propi direnez. Baldiñ, konpa-

razionera, inyustuki pertsekutatua, edo bertze zenbait maneraz aflyitua bazare, eta baldiñ, tristezian hondoatua sentitzen baduzu zure burua handizki tentatua inpazienziara, huntarañokoan, non ezin deus gehiago sofri baitdezakezu, edo ez baituzu deus sofritu nahi: entsaia zaite halere kuraie berri-berritan hartzera, erreflexione serio-sak egiten ditutzularik ondoko puntu haukien, edo bertze zenbait hunelakoen gaiñean.

1. Ikhus azu, ea, pairatzen duzun gaitza, ez duzun merezitu, eta ea ez duzun zeronek zueure buruaren gaiñera eror-arazi. Ezen zure faltaz sofritzen baduzu, zer yustuagorik pazienziarekin sofri dezazun baiño zauri-bat, zure eskuz zeuere buruari egiñ diozuna.

2. Horren gaiñean ez baduzu deus zure buruari erreportxatzekorik, itzul etzatzu zure begiak zure bekhatu iraganen gainera, zeññetaz ez baitzaitu lustizia dibinoak oraiño punitu, edo zeññak ez baititutzu zeronek penitenzia asko den batez urrhatu. Eta ikhusirik, jaiñkoak, bere Miserikordiaz, ganbiatu duela, zuk merezi zinduen pena, zeinak izan behar bailuke, edo haiñitz luzea Purgatorioan, edo bethikoa Ifernuan, gan-

biatu diot, duela bertze pena ariñago eta laburrago batera; har zazu pena hau, ez xoillki pazientki, baiñan oraiño alegeraki eta eskerro-nezko akzionaekiñ.

3. Baldin uste baduzu, egia ez den arren, ez duzula egiñ bekhatu guti baizen, eta egiñ duzula penitentzia haiñitz, seguratu izan zaite Zeruko Erresuman eziñ sar zaitezkeela, nahigaben eta hertsduren athe hertsitik baizen.

4. Orhoit zaite oraiño, baldiñ aflikzionen bidez, bertze batetik Zeruan sar ahal baziñte ere, Jainkoarentzat behar duzun, amodio phuruak ematen darotzun lege xoillak khendu behar larotzukela, errexki Gloria eternala irabazteko desira eta pensamendua; zeren Jaiñkoaren Semea, eta hunen ondotik Saindu guziak, bere Gurutzeak bizkarrean eta arantzez estalia den bide batetik Zeruan sartu bait dire.

5. Baiñan, huntan, eta gauza guzietan, beregainki behatu behar diozuna da Jaiñkoaren Nahia: ezen haiñ maite bazaitu, non plazer handi bat hartuko baitu, ikhustez bertutezko akziona distiantenak egiten ditutzula, eta zuretzat duen amodio isuriari, zure kuraiearen eta zure leialta-

sunaren frogez, ihardesten diozula. Gaiñerakoan yakiñ zazu; zenbatenaz izanen baita sofritzen duzun pertsekuzioea, sofri-arazten darotzunaren partetik, inyustuagoa, eta beraz zuretzat, gutiago yasan kidina, hanbatenaz Jaiñkoak estimatuko duela zure konstanzia, haren Probidentiari sumetitzen zaizkola, zeñak onera itzul-arazten baitditu gerthakari ondikozkoenak, eta gure salbamenduarentzat balia-arazten baitu gure etsaien herra ere.

XV. KAPITULUA

*Bertzen zenbait abisu haiñitz
probetxosak, yakitekotzat zein den
ungi gudukatzeko moldea; zein etsai
atakatu behar den; eta zein
bertuteren medioz bentzu daitezken.*

Ikhusi duzu, nork bere burua garaitzeko ahala eta indarra eta egiazko bertuteak ardietsitekotzat, nola gudukatu behar den. Ordean bitoria errexkiago eta lausterrago eramateko, ez dezazula uste izan asko dela gonbatzea, eta aldi bakhar batez nork bere kuraiea agertzea edo seinalatzea: behar da oraiño gudura berriz ere bihurtu, beregaiñki amodio propialaren kontra, afrunturik miñenak eta odoldagarrienak egiñ darozkiguten presunak, gure adiskidetzat har detzakegun arterañoakoan. Maiz eta maiz gerthazten da, ia erran dudan bezala, gudu suerte hau negliyatu izanez, gure bitoriak izaten baitdire gaitzak, ez konpliak, noizean behingoak, eta iraupen gutitakoak. Hari zaite beraz borroka

gogotik eta kuraie handibatekiñ; eta ez dezazula errezelutzat eta aitzekiatzat ekhar zure flakotasun naturala. Ezen indarrak eskasten bazaizkitzu, galde diotzotzu Iesus gure Salbatzaileari: eta segurki emanen darozkitzu.

Orhoit zaite oraino, baldiñ zure etsaien furia ezin gehiagokoa, hekin nonbrea eziñ kondatuzkoa bada, Jaiñkoaren zure alderako amodioa infinituki are handiagoa dela; zu gardatzen eta defendatzen zaituzten Zeruko Aingeruak, zuretzat othoitzean daudezen Sainduak haiñitez nonbre are handiagoan direla.

Orhoitzapen hunelakoek, hanbat borthiztu eta animatu dituzte emazteki sinpleak ere, non bentzutu izan baitute Munduaren zuhurtzia guzia; buru-egin baitiote haragiaren tentamendu serragarri guziei; eta bitoria eraman baitute Deabruaren errabia guziaren gaiñean. Horra zergatik ez duzun izitu behar; iduritzen zaitzun arren, hanbat etsaien bortxagunei ez dela errex kontra-egitea; gerla hau ez dela fiñatuko zure biziarekiñ baizen; eta haiñitz partetarik mehatxatua zarela, hurren segurki zure Arimaren galitzeaz. Ezen hau ere oraiño yakiñ behar duzu: ez

zure etsaien indarrek, ez hekien maliziak eziñ kalterik egiñ diezazukete, non ez dioten permitzen lainkoak, eta lainko hark, zeñaren ohorearen sustengatzeko gonbatatzen baitzare. Eta nola Gudu suerte hau guziz maite baitu; nola huntara Mundu guzia hertxaten baitu; ez xoillki ez du sofrituko, zu galtzea billhatzen dutenek, konpli dezaten bere deseñu gaxtoa, baiñan oraiño, zurekin batean hekien kontra gudukatuko da, eta goiz edo berant, bitoria eraman-araziren darotzu zure probetxu handitan: goait edo gardian egon behar balu ero zure biziaren azkeneko eguneraiño.

Zure ganik galde egiten duen guzia da, defenda zaitezen kuraioski; eta, zenbait aldiz zauriak egiten baderautskitzute ere, ez detzatzun horrengatik armak eskuetarik utz, eta ihesi goan. Gaiñerakoan zure eginbidea ungi egitera anima zaitezentzat, orhoit zaite gerla hau eziñ itzurizkoa dela, eta baitezpada edo gudukatu edo hill behar dela. Ezen ez da haratik eta hunatik: Baduzu egiteko etsai batzuekiñ, zeñak haiñ furiosak eta hain muthiriak baitire, non ez baita

behiñere posible haukiekiñ ez bakerik, ez astirik
izatea.

XVI. KAPITULUA

*Goiz-goizetik gonbatara preparatu
behar du Kristoren Soldaduak.*

Iratzarri zaren bezain sarri, egiñ behar duzun lehenbiziko gauza da, zure Arimako begien idekitzea, eta zure burua konsideratzea, batailla bat ematera dohan, kanpo handi batean baziñe bezala zure etsaia aiñtziñean; eta bortxatua, edo gonbatatzera, edo sekulakotz galdua izatera. Har zazu beraz begien aintziñean etsai hura, zeïña ez baita deus bertzerik, bizio bat baizen, pasione deserregelatu bat baizen, aspaldion zure gañik khendu nahi ziñdukena. Presenta diozozu, diot, zure izpirituari Monstro furios hura, zure iresteko, bere astaparrak zure gainean landatzeko menean dagoena. Presenta diozozu denbora berean zure burua zure izpirituari, Jesus-Kristo zure Kapitaiñ ezin garaituzkoaren eskuñean baziñe bezala, konpaiñian dituela Biryina Maria eta Ioseph saindua, Aiñgeru eta Dohatsuezko tropela handiak, eta beregainki Jon

Doni Mikhel Arkanyelu gloriosa; eta zure ezkerrean duzula Luzifer, bere Lagun eta ministre gaxtoekiñ: hauk deliberatuak, gudukatzeko duzun bizio edo pasione hura zure baitan finkatzera, eta bere ahal guziak obretan ematera zu hartan eror-araztekozat.

Arte hortan imayina zaite, zure bihotzaren barrenean aditzen duzula zure Aingeru Gardianoaren boza, hunelaxe mintzo zaitzuna: Bai! egun egin behar dituzu azken efortak garaitzeko etsai hori, eta bertze etsai, zure kontra altxatu diren, guziak: Duzun, arren, kuraie on: ez dezazula utz bihotza erortzera izialdura funts gabeko batez, ez eta bertze zein nahi den arrozinez; zeren Jesus, zure Kapitaiña, hor baituzu aldean, Zeruko Armada handi batekiñ, gerla egiten darotzuten guzien kontra, zu defendatzeko deseñuarekin ethorriak, eta behiñere ez permitzeko, ez bortxaz, ez amorez, hekiñ menera eror zaitezten. Zaude fermu: eta zer nahi den paira dezazun, bortxa egiozu zure buruari; zure bihotzaren barne-barnetik oihu egiozu Jaiñkoari; errekeri-tzatzu kontino Jesus eta Maria: othoitzatzu Saindu guziak, alde dakizkitzula. Hori egiñ

ondoan, ez dezazula batere duda, bitoria ez duzula eramanen.

Nahi den bezanbat flako izan zaitezten, nahi den bezaiñ ikharagarriak iduri dakizkitzun zure etsaiak, eta bere nonbrean, eta bere indarretan; ez halere izi batere: ezen zure laguntzera Zerutik yausten diren tropela sainduak, Ifernuak Graziaren bizia arrapatzeko egortzen darozkitzunak baiño nonbre handiagoan dire. Zu kreatu eta erresketatu zaituen Jaiñkoa, Bothere guziak dituen da. Maite zaitu; defendatzen eta laguntzen zaitu; eta desira edo lehia, konparazionerik gabe, gehiago du, zu salbatzeko, Deabruak duen baiño, zu gal-arazitzeko.

Borroka hari zaite beraz kuraioski: ez zaitezela behinere unha zueure burua mortifikatzen; zeren zure inklinazione gaxtoei, zure usantza biziotsuei bethi gerla egiñik, azkenean bitoria eramanen baituzu, eta bide hortaz sarthuko baitzare Zeruko Erresuman, zure Arima Jaiñkoarekiñ, eternitate guzian, yuntatua egonen den Lekhuan. Has zaite orai beretik Jaunaren izenean gudukatzen; ezpatatzat eta erredola edo buklieratzat harturik, zure buruazko mezfidantzia, Jaiñ-

koa baitango fidantzia, Othoitza, eta zure Arima-ko eta zure izpirituko ahal eta puxantza guzien enplegu saiñdua.

Arma haukiekiñ, atakatuko duzu zure etsaia, erran nahi da, zure pasione nausiena edo dominante: hura bentzutzeaz egizu, edo yeneroski hura mesprezaturik, edo hari fiñki kontra-egiñik, edo hari oposatzen zaioen bertutearen obrak, husu eta maiz, eginik, eta fiñean Zeruak inspiratuko eta fornituko darozkitzun moienez, hura zure bihotzetik urhun apartaturik eta suntsiturik. Non ez duzun osoki garaitua ikhusten, ez zaitezela pausa: zure konstanziatz merezituko duzu Khoroa errezibitzea Yuie soberanoaren eskutik, zeña Zeruko Gorthe guziarekiñ, zure gonbatari beha egonen baitzaio.

Berriz ere oraiño erraten darotzut: gerla huntan ez duzu behiñere fastikatu behar. Konsidera zazu xoilki, gizon guziak Jaiñkoa zerbitzatzera, eta hari plazer egitera obligatuak direla: bertze alde, nahi edo ez, gudukatu behar dela; ihesi goaten dena kolpatua izateko, eta bizia galtzeko ere hirriskuan denaz geroz; eta guzien ondoan, nahi bagiñdu ere, Jaiñkoaren kontra erreboltatu,

eta munduaren partida besarkatu, gure buruak plazer-pean igerika erabili nahi bagiñtu ere, ez giñtezke guziarekiñ penarik gabe, bethi, nahi edo ez, balitekenaz geroz, hainitz sofritzeko eta gorphutzean eta ariman, gure sensuen gutzieren eta gure anbizionearen kontentatzekotzat. Othe da erhokeria, hauxe baiño, handiagorik: Mundu huntan ez gaituzte izitzen pena eta nekhe dorp-henek, zeñen ondoreak izanen baitire suplizio eta tormenta eternalak; eta ikharatzen gare, kestione denean zenbait mortifikazione eta pena ariñez, zeñek gidatuko baitgaituzte zorionezko Eternitate batera, eta Jainkoaz, menderen mende, gozatuko garen errepausu perfetera.

XVII. KAPITULUA

Zeiñ diren lehenik gudukatu behar ditugun pasioneak eta bizioak.

Gauza konsekuentzia handitako bat da yakin dezazun, pasioneak eta bizioak gudukatzean, zeintarik hasi behar duzun lehenik; itsuan hari ez zaitezentzat, eta zure kolpeak, alferrik eta aireari, eman ez diotzatzuntzat, haiñitz yende bezala, zeinek, hola egiñez, galtzen baitituzte bere penen eta nekhen fruitu khasik guziak.

Has zaite beraz ungi eta arthoski, zure bihotzaren barnean zarraturik, etsaminatzen, nolakoak diren maizenik, zure pensamenduak eta zure afekzionaek; zeñ den zure baitan gehienik erregiñatzen duen pasionea. Hura da beregaiñki, zure etsayik handienari bezala, gerla deklaratu behar diozuna. Baldiñ ordean Etsai gaxtoak, armak bertzetara zuri itzul-araztekotzat, bertze zenbait aldetarik atakatzen bazaitu, goan behar duzu orduan hirrisku handiena den lekhura: eta

gero bihurtu behar duzu berehala, lehen bezala,
zure pasione nausitu hura gudukatzera.

XVIII. KAPITULUA

*Zein maneraz behar diren itho
Pasionen mobimendu ezagutzeko
gaitzenak.*

Baldin ez bazare oraiño kostumatu, pasienki sofritzen hitz-minak, afruntuak, eta bertze mundu huntako, penak kostuma hau ardiets dezakezu, hek guziak, arribatu baiño lehen, zure izpirituari presentaturik, zure burua urrhundik eta aiñtziñkar preparatzen duzula, hauk errezibitzera. Noiz eta ere beraz etsaminatu baitukezu, nolakoa den, zu gehienik tormentzen zaituen pasionea; goardia eman behar diozu, nolako presunekiñ duzun egiteko, zeñ lekhutan, zeñ okasionetan maizenik aurkhitzen zaren: horra nola ezagutuko ditutzun, gerta ahal dakizketzun gaitz guziak.

Baldin arribatzen bazaitzu ustekabeko malhurik edo gerthakaririk, zure prekosioneak hartu izana aiñtziñetik, hunelako mortifikazionen eta sofrikarien kontra, handizki baliatuko zaitzunaz.

Bertze alde, huna oraiño moien bat hunelako akzidentak ariñduko darozkitzuna. Stropuz erran darotzuten hitz min batez: edo iguriki gabeko sofrikari batez, zure burua mobituxea sentitzen duzun pontutik; zaude erne eta atzarria: ez utz zure burua xagrinatzeraz: duzun artha zure bihotza berehala Jaiñkoa gana altxatzeaz, eta konsidera zazu malhur hura dela Zerutikako ontasun bat, Jainkoak berak, haiñ ona den Aita hark, zu hobeki garbitzekotzat, eta berekiñ hertsikiago yuntatzekotzat, moien bat bezala, egortzen darotzuna: eta orhoitz zaite, Jainkoak har dezaken plazer handienetarik dela, haren amorea gatik, nahigabe dorphenak bozkariorekin sofritzen zu ikhustea.

Itzul zaite ondoan zure buruaren kontra, eta egiñ diotzotzu merezi ditutzun erreportxuak. Haizen bezalako gogo urria eta laxoa! haiñ kuraie guti duk bada, non eziñ yasan baitdeza-kek Gurutze bat, zeina heldu baitzaik, ez presuna horren ganik, baiñan hire aita zerukoa ganik? Gero beha diozozu gurutze hari berari; eta erre-zibi zazu, ez xoillki humilltasunekin, baiñan oraiño alegeraki, diotsozula: o Gurutze, Probidentzia

dibinoak, ni mundura gabe enetzat preparatua zadukana! Gurutze! Jesus gurutzefikatuarentzat dudan amodiak, sensuen plazer guziak baino, gozoago errendatzen darotana! Zuri bihotzez lotzen natzaitzu; Zure medioz yunta ahal nadin-tzat, zure besoetan Bizia galdurik, erosi izan nauen, Jesus berarekin.

Ordean baldiñ pasioneak bere-hala hartara-ñokoan nahasten bazaitu non ematen baitzare, zure izpiritua Jaiñkoa gana altxatzeko estatutik kanpoan eta baldin zure bihotza kolpatuxea sentitzen baduzu ere, begirau-tzu, ez utz urhunago goatera: eta zure barenean zeññ nahi den kalte egiñ darotzun; ez zaitezela geldi zure ahal guziak egitetik, hura garaitzekotzat, hortakotz galdetzen ditutzularik, su eta karrekiñ, zeruko laguntzat. Ezen goardia ungi: pasionen lehenbi-ziko saltoak arrastatzeko moienik segurenak, hekin kausa khentzera goizdanik entsaiatzean datza. Ezagutzen baduzu, konparazioñera, zen-bait gauzari sobra yosia izanez, koleraan sartzen zarela, zure inklinazioneak trabatzen dauzkizu-ten, aldi guzietan, hauts azu amodio hori, eta izanen zare bethi sosegu perfet batean.

Baiñan baldin zure bihotza khexatua sentitzen baduzu, ez zenbait objet agradarrientzat duzun amodioa dela kausa, baiñan zeren duzun eziñbertzezko higuintza bat presuna batentzat, zeññaren baitan ez baituzu deus onik, ez ungerik aurkhitzen; zeññaren obra guziek bihotza gaxtazten edo errebolatatzen baitarotzute: gaitz hunen erremedia da, (eziñbertzezko herra hunen despit) presuna hura maitatzeko, zure ahalen egitea; ez xoillki zeren den, zu bezaiñ ungi, Jainkoak bere eskuz formatua, eta Jesus-Kristok bere Odolaz eresia; baiñan zeren, haren eskasak ezitasunekiñ yasunez, zure burua errenda ahal baitezakezu Zeruko Aitaren iduriko, zeññak guziak maite baigaitu, eta guziei ungi egiten baitaroku, berez gunerik edo ditzinzionerik gabe.

XIX. KAPITULUA

*Zer moldez behar den gudukatu,
eta garaitu lohikeriazko bekhatua.*

Bizio hau bere-gisa behar duzu gudukatu, eta bertzeak baiño animo eta indar gehiagorekin. Huni ungi lotzeko, yakin eta orhoitu behar duzu, Pasionen huneak badituela hirur ordo edo zirkonstantzia diferent. Lehenbizikoa, tentatua izan baino aintziñagokoa. Bigarrena, tentazione beraren denbora edo iraupena. Hirugarrena, tentazionea iragan denekoa.

Tentazionea ethorri baiño lehen, gure ahal eta artha guzia enplegatu behar dugu, den okasionerik xumenari ere ihes egiteko, eta urhutzeko hirriskuzkoak diren presuna guzietarik. Baldin malhuruski, gure estatuz, obligatuak bagare, hunelakoekiñ solhas-egitera, behar dugu ahalik laburzkiena akhabatu, modestiarekiñ eta begiak beheiturik mintzatu; zerbitzatzaren garelara hitz honestez grabes, eta agertzen

dugula aire serio bat, famillertasunik eta ergelkeriarik batere, urhundik ere, ez duena.

Ez dezazula zure buruaren gaiñean haiñitz konda; zeren, (haiñitz urthez mundupean bizi izan ondoan), ez duzun hurren batere sentitu Haragiaren kilikadurarik edo mobimendurik. Ezen lohikeriaren Deabruak egiten du oren batez, urthez haiñitzez egiñ ez duena. Badago batzuetan denbora haiñitz, gauzen hobekiago preperatzen: ordean ematen dituen kolpeak hanbatenaz dire borthitzagoak, egiten dituen zauriak hanbatenaz perillosagoak, zenbatenaz baitaki, ungia eskarniatzen, eta ferekatuz heriotzeko kolpea ematen.

Erremarkatzeko ere da, eta egun orozko experienziak erakutsten du, ez dela nihoiz hirris-kua handiago, nola baita, egiten eta entrenitzen dugunean zenbait adiskidetasun, zeñetan, iduriz, ez baita deus gaxtorik, fundatuak zeren diren arrazoiñ ederren gaiñean; hala nola ahaidetasunaren, ungi-egiñentzako bihurkundearen, edo bertze zenbait obligazione izanaren gaiñean, edo bederen, maitatzen dugun presunak dituen bertuten merezimenduaren gaiñean. Amodio lik-

hitsu edo amurusia, adiskidetasun suerte hautara, sentitu gabe, lerratzen da bisita husuez, solhas luzez, famillertasun sobraniazkoez: sar-arazten du fiñean pozoiña bihotzeraiño, arrazoiña edo adimendua itsutzerañokoan. Orduan ezdeuskeria batzuentzat kondatzen dire modes-tiaren kontrako begi kolpeak, hitz eztiak solhas dostatzekoak, ergelak eta libroak, zeñetarik sor-tzen batire tentazione borthitzak, eta hurren ezin-garaituzkoak.

Bertze moien guziak enplegatu baiño lehen, egiozu beraz ihes bekatuko okasioneari: ezen, gardia ungi, su handi baten hurbillean lasto pixka bat bezala zare. Ez zakizkola fida zure bertuteari, ez eta Jainkoa ofensatu baiño lehen hill-tzeko hartu duzun borondateari: ezen zeñ nahi den borondate on izan dezazun, konbersazione ezti eta husu horietan pixten den amodio lohia-ren sua, hartaranokoan kharretan emanen da, non ez baita deus gai izanen zu hunen iraungizeko. Gure pasionea kontentatu nahizko lehiaitsuak, debekatuko zaitu entzutetik zure adiski-den konseillu onak; galduko duzu Jainkoaren bel-durkundera; ohoreaz eta biziaz ez duzu axolarik

izanen; Iferñuko Suak berak ez du iraungiren, zu erretzen zaituen lohikeriaren kharra.

1. Ihesi egiñez, billa zazu beraz zure salbamendua; non ez, uste gaberik hartua izanen zare, eta fidantzia presunzionetsu hortaz punitua izan zaitezentzat, eroriko zare heriotze eternalera.

2. Egiozu gerla alferkeriari; duzun bethi gogotan zer egiñ behar duzun, eta konplizatzu, deus ahortzi gabe, zure estatuko egiñbide inportant guziak.

3. Gogo onez eta uzkurkeriarik gabe obedi diozozute zure Buruzagiei. Hitza aditu bezain lauster, egizu manatzen darotzutena: eta gauzarik humiliagarrienei, eta zure nahiei gehien kontra-egiten diotenei, lehia eta enpresamendu handienarekin bethi lot zakizkote.

4. Begirautzu ungi, zure proximo lagunaz yuiamendu ariñik ematetik; bere gainki lohikeriaz kestione denean. Baldinetaria, bere ondiko handitan, bekhatu huntan erori bada, eta haren bekhatua publik errendatu bada; ez dezazula hargatik mespreza; ez zaitezela haren kontra kolera eta alarma: baiñan urrikal bekizu haren

flakeza; eta zure ahalean progotxa zaite haren hutsaz, Jainkoaren aintzinean zeroni humiliatzen zarela. Aithor zazu ez zarela basa eta herrautsa baizen; ezdeus phuru bat baizen: berre-tzatzu zure othoitzak: lehen baiño, artha gehiagorekin ihes egiozute ezagutza perillos guziei, den gutiena xuxpitzatzekoak badire. Ezen baldin zure anaia giristiñoez gaizki yuiatzera ekharria, eta lausterregia bazare, Jaiñoak permetituko du, zu punitzeko eta denbora berean zu korreyitzeko, zeroni, kondenatzen ditutzun flakeza beretan eror zaitezen; eta ahalkeria hortaz ezaguturik zure urguillua eta zure prudenzia eskasa, billatuko ditutzu, batarentzat eta bertzearentzat, behar diren erremedioak.

Baiñan flakeza ahalkagarri hetarik zure burua gardatzen bazindu ere, yakiñ zazu, baldiñ yuiamendu ariñen egiteko, eta xuxpitxa ariñen hartzeko usantzan bazare, galtzeko hirrisku handian zeroni bethi izanen zarela.

5. Zure bihotza baldin sentitzen baduzu, gozo eta konsolazione izpiritualez bethea, ez dezazula zure barnean izan ixillikako konplazenziarik; ez dezazula gogoan har, perfekzionario gorenera

igana zarela eta Etsaia, zuri kalte egiteko estatutik kanpoan dela; zeren iduritzen zaitzun, ez duzula harentzat mespreziorik, hodiorik, eta abhorrimendurik baizen. Izan zaite seguratu, atzartasun oso bat gabe, hagitz gaitz izanen zaitzula, erori gabe egotea.

Mintza gaitezen orai, tentazionearen ordu bereko gauzez. Berehala ikhusi behar da, ea hura altxa-arazi duen kausa, barnekoa, ala kanpoko den.

Erraten dudanean Kanpoko aditzen dut, gauza guti honesten ganean den kuriostasun, ala begiezkua, ala beharriezkua: aditzen dut, arropen edertasuna, fintasuna, magnifizenzia; aditzen ditut, adiskidetasun Jaiñkozko ez direnak, eta munduzkogiak; aditzen ditut solhas libroegiak. Gaitz huni erremedioa ematen zaio, modestia oso batez, eta gorritzeko errextasun honest batez, zeinak atxik-arazten baititu begiak eta beharriak zarratuak, izpiritua lohi dezaketen, objet guzientzat. Ordean erremedio soberanoa eta hoberena da, ya erran dugun bezala, ihesegitea.

Barneko kausa heldu da, indarren, osasunaren, hazkartasunaren sobraniatik, edo izpiritura tropelaka ethortzen diren gogoeta gaxtoetarik. Eta hauk dire, bekhatuzko gure usantza gaxtoen efetuak, edo Satanen asmuak eta linbuzteriak.

Gorphutzak, asepean eta gurikerian kostumatuak, behar du izan matutua, flakatua, eta hebaindua barurez, izifriñez, zilizioez, gaubellez, eta bertze mortifikazione suertez: ordean hunelakoetan ere, ez dire behiñ ere iragan behar dizkrezionearen eta obedienziaren mugarriak.

Gogoeta lizunez denaz bezanbatean, nondik nahi ethor daitezzen khasa eta aparta detzakegu. 1. gure estatuko lanei serioski aplikatzen gaizkotela; 2. Othoitzaren eta Meditazionearen medioz: (Meditazionea da, mihia eta ezpainak erabilli gabe, Relijioneko zenbait Ponturen edo misteriorren gaiñean, gure izpiritua eta pensamenduak, ahal bada, guziak, edo bederen ahalik gehiena eta luzena, erabilltzea).

Othoitza hunelaxe egin behar da. Pensamendu lohi zenbait, izpiritura ethortzen zaitzunekotz, eta haren markak zure baitan sentitzen hasten zarenekotz, sar zaite zure bihotzaren barrenerai-

ño, eta Jesus Gurutzefikatuari adrezatzen zaizkola, errozu: O ene Jesus on eta miseriakordosa! lauster egizu ni laguntzera; ene Etsaien eskuetara erortzeko menean naiz. Bertze aldi batzuez, Jesus itzatea izan den Gurutzea besarkatzen duzula, haren Oiñetako zauri sakratuei milla musu eman diotzotzute, amodiorekin eta fidantziarekin erraten duzularik: O zauri adoratzekoak! o zauri guzizko sailduak! zuen markak inprima-tzatze ene bihotzean krimez eta itsuskeriez bethea den biotz huntan; eta garda-nazazue bekhatu egitetik.

Meditazioneaz denaz bezanbatean, ez darotzut konseillatzen, tentazioneak borthizkienik hersteñ eta tormentatzen zaituen denboran, egitea, lohikeria abhorri-arazteko, zenbeit Liburuk irakhasten dutena: hala nola konsideratzea bizio hau ahalkagarria dela; eziñ sasia daitekela; bere ondotik darraizkola milla desgostu, milla nahigabe, milla khexagune edo xagriñ, eta batzuetan, ontasunen, osasunaren, biziaren, ohorearen, etc, kaltea ere. Huna ene sentimenduaren arrazoiña: hunelako konsiderazioneak ez dire moien aski botheretsuak, hirriskutik zu atheratzeko edo

libratzeko: aitzitik, maiz gehiago baizen ez gaituzte barna sar-arazitzen; zeren, baldiñ alde batetik izpirituak khasatzen baditu pensamendu gaxtoak, bertze partetik bereganatzen baititu, eta bethi ematen baitute bihotza konsentitzeko hirriskuan.

Beraz biderik segurena, hunelako gogoetarik lauster libratua, izateko da, ez xoillki gure izpiritutik objet likhitsen urruntzea, baiñan oraiño haukiei kontra-egiten diotenez ere ez orrhoitzea; zeren kontrakoen medioz, hek urruntzera entsaiatzen garen denboran, hetan, nahi edo ez, pensatzen baitugu, eta hekien imayinak gogoan erabilltzen baititugu. Kontenta zaite beraz orduan Meditazione egiteaz salbatzaillearen biziaren eta pasionearen gaiñean; eta baldin meditazione saindu horren denboran, gogoeta berak heldu bazaizkitzu, aintzinago baiño pena gehiago, gertha daiteken bezala, egiten badarotzute; ez dezazula horrengatik animoa gal, ez eta utz Meditazionea. Hekien kontra efort handiak enplegatu gabe, mespreza tzatztizu, ez zure ganik, baiñan Deabruaren ganik heldu diren tentazione batzuek bezala; zohaz bethi aintzina,

ahalik atenzionerik gehienarekiñ, Jesus Kristoren Heriotzearen gaiñean hasi duzun Meditazioea. Ezen ez da deus geiagorik eta puxantagorik, lohikeriazko Izpirituaren desterratzeko eta khasatzeko, nola baitire Pasioneako Misterioak: Satan deliberatua balitz ere, behiñere gelditu gabe, zuri gerla egitera.

Akhabatuko duzu zure Meditazioea Othoitz huntaz, edo bertze hunelako zenbaitez: o Ene Kreatzaillea eta ene Redentorea! zure miseri-kordia infinituaz, eta zure Pasionearen merezimenduez libra nazazu ene Etsaietarik. Ordean, hori erratean, duzun atenzione, ez niholere gogora erakhartzea, urrundu nahi duzun, bizioa; zeren haren orhoitzapenik xumena ere orduan perillos baitzinduke. Gardia emozu beregainki, ez dezazun denbora gal, arrazoiñatzen zure buruarekiñ yakiteko, ea tentazioneari konsentitu diozun, ala ez diozun konsentitu. Ezen etsamen suerte hau, Etsaiaren imintzione bat da, zeññak, itsurazko ungi baten, eta funts-gabeko eginbide baten aitzekian, inkietatu eta nahasi nahi baitzaitu; edo bederen esparantza baitu, zenbait

plazer har-araziren darotzula, gogora erakhar-
tzen darozkitzun, objet itsusi eta lohi hekietan.

Beraz, klarki ageri ez denean, bekhatuari
konsentitu diozula; kontentatu behar duzu, zure
Aita izpiritualari fede-onez errateaz, tentazione
haren gaiñean, dakizun guzia; eta hark erraten
darotzunaren arabera, atxik zazu zure izpiritua
errepausuan, eta ez hartaz gehiago orhoit. Bai-
ñan ager diozozu garbiki zure bihotzaren funts
guzia, behiñere deus gorde gabe, edo ahalkeria
triste eta damnagarri batez, edo bertze zeññahi
den arrazoiñez. Ezen baldiñ humilitatea nezesa-
rio baduzu, yeneralean zure etsai guzien garai-
tzeko; zenbatetarañokoan ez othe duzu humilia-
tu behar, zure bihotza libro atxikitzeke bizio hun-
tarik, zeñña baita, khasik bethi, urguilluaren puni-
ziona.

Fiñean tentazionea iragan ondoan, huna zer
egñ behar duzun. Errepausu oso batean zaude-
zen arren, eta segurean zarela uste duzun arren,
guziarekin ihes egiozute, zure ahal guziaz, tenta-
zione hura sor-arazi darotzuten, gauzei eta obje-
tei; eta ez dezazula sofri berriz zure izpirituan
sar daitezen, nahiz bertutearen, nahiz hetarik

ardiets dezakezun zenbait bertze on delakoen kolorearen azpian, ethor dakizkitzun. Ezen aitzekia suerte horiek, haragi korrumpituaren falseriak dire, eta Satanen artifizioak, zeinak hagitz ungi eskarniatzen baitu Aiñgeru onaren figura, zu berekin traiñatzekotzat Kanpoko illunbetara: hauk dire lfernuko illunbeak.

XX. KAPITULUA

*Nola behar den gudukatu
Alferkeriaren bizioa.*

Handizki da nezesario alferkeriari gerla egitea; zeren bizio hunek, ez xoilki perfekzioneko bidean gibelatzen baitgatu, bainan oraiño zeren libratzen baitgaitu, hunela errateko, gure salbamenduaren etsaien eskuetara. Baldin beraz nahi baduzu, bizio hau ziñ-ziñez gudukatu, haiz zaite berehala, kuriostasun eta dosteta inutill guziei ihes egitetik: munduko gauzetarik lexa zazu zure bihotza: zure estatuari ez dauzkon okupazione guziak kita-tzatzu. Entseia zaite gero, fite eta luzatu gabe, Zeruko inspirazionei ihardestera; zure Buruzagien ordenak konplitzera; eta gauza guziak egitera, hek nahi duten, mugan eta moldean manatzen dautzutena egitea, ez gibela instant bat ere. Orhoitz zaite luzamendu bati, bertze luzamendu bat darraiola, eta huni, hirurgarren bat; eta horlatan, bethi luzatuz goatea dela; zeren traillaak ematen darotzun izialdura

geroago eta gehiago emendatuaz baitdoha, eta pausuarentzako edo alferkeriarentzako amodioa bethi borthiztuaz hunen eztitasuna gustatzen dugunaren eredura. Hortik heldu da, lanean hari behar denean, ahalik berantena lotzen baitgaizko, edo behiñere lothu gabe gelditen baitgare: hortaraño doha traillaurentzat dugun higuin-tza.

Horra nola alferkeriaren habitudak gure baitan erroak egiten dituen, zeñen atheratzea hagitz gaitz baita; non ez dugun noizbait, osoki balhorerik gabe bizi izan garela, ahalkaturik, ethorkizunean arthosago eta langilleago izatera deliberatzen.

Ordean gardia ungi: alferkeria da pozoin bat, gure arimako fakultate eta ahal guzietara hedatzen dena, korrupitzen duen ez xoilki gure biho-tza, trailla higuin arazten darokularik, baiñan oraiño gure adimendua eta izpiritua pozoatzen dituen, itsutzen gaituelarik halako gisaz, non ez baitugu ikhusten, alferren erresoluzione gehienak efetu gabeak direla, eta ordu berean egin behar litezken lanak, edo ez dituztela nihoiz egi-

ten, edo bertze denbora batera egortzen dituzte-
la.

Gardia emozu bertzealde, ez dela asko, lauster eta luzatu gabe, egiteko den gauza egitea; baiñan lanak berak galdetzen duen muga, hortakotz berezi behar dela, eta, gauza hura egitean, artha eta atenzione oso bat eman behar dela, gauza hari, gai den, perfekzione guzia ematekottzat. Ezen egiaz, ez da langille onaren marka, baiñan bai alferkeria fiñ eta malizios batena, manatuak zaizkigun lanak, ahalik fitetzena egitea; penetan eman gabe, ea ungi egiñak izanen diren: kontent eta alegera, ahalik lausterrena libro izateaz, eta alfer egoteko denbora gehiago ardiesteaz. Desordena hau heldu da huntarik: ez baitugu aski konsideratzen zer balio duen obra on batek, bere mugan ez giña denean, eta alferkeriak, bizioei gerla egiten hasten diren presu- nei, aitzinean ematen diotzten traba guziak khentzen eta bentzutzen ditugunean.

Maiz orhoit zaite beraz, hasgorapen bakhar bat, othoitz labor, ordean bizi bat, belhaunikatze bat, Majestate dibinoarentzako errespetuzko seinale xume bat, gehiago direla prezatzeakoak eta

estimatzekoak, lurreko tresor guziak baiño; eta zerbaitetan mortifikatzen zaren aldi guzietan, Zerutik Aiñgeruek ekhartzen darotzutela khoroa bat, zure gainean eraman duzun bitoria errekon-pentzatzeo, edo saristatzeko. Kontrara; orhoitzaite, Jainkoak erretiratzen dituela Graziak, negliyatzen dituzten arima ephelen ganik; eta bethetzen dituela, hetaz baliatzeñ diren arima leialak eta khartsuak; egun batez *zerbitzari fidelak, sar ahal daitezentzat bere Jaunaren bozkarioan.*

Baldiñ ordean ez badiozu lehenbizian senti zure buruari indarrrik asko, perfekzionario bieran aurkhituko ditutzun pena, eta nekhe guzien sofritzeko, balia zaite fiñezia huntaz: Nekhe eta travaillu hauk gorde diotzotzu zure buruari, halako gisaz, non alferrek uste duten baiño errexagoak eta ariñagoak aurkhituko baititutzun. Baldiñetaria, beraz, bertute baten ardietstekotzat, nezesario bada bertute haren obra haiñitz egiñ dezaun; egun haiñitzez hartan okupa zaitezzen; zure deseñu onak trebestatzen dituzten, etsai borthitzen nonbre handi bati gerla egin diozozun obra hek has zaizitzu, guti baizen, egiteko ez bazintu

bezala; lot zakizko lanari, zure trabai luak luze iraun behar ez balu bezala; ataka-tzatzu zure etsaiak bata bertzearen ondoan, bat baizen bentzutzeko ez bazindu bezala. Eta izan zaite seguratu, hek guziak baiño, Jainkoaren graziarekiñ batean, borthitzago izanen zarela. Moian hortaz garaituko duzu alferkeriaren bizioa, eta ardietsiko duzu, huni kontra egiten dioen, bertutea.

Gauza bera egizu Othoitzean. Baldiñ zure Othoitzak iraun behar badu oren bat, eta oren hura luzegi iduritzen bazaitzu; har zazu xedea, oren-laurden erdi batez xoillki, Othoitzean egonen zarela; eta oren laurden erdi huntarik, bertze oren laurden erdi batera luzatuz, ez da gaitz izanen, oren osoa azkenean bethetzen. Baldin ordean bigarren edo hirugarren orenerdian herabetasun eta desgustu handiegi bat sentitzen badiozu zure buruari Othoitzarentzat, ez segi, hartaz osoki fastikatzerañokoan; baiñan othoitzak erratetik geldi zaite aphur bat; gelditze horrek ez darotzu kalterik ekharriko; baldiñ handik lauster, berriz lotzen bazaizko.

Orobat konporta zaite, esku-lanen eta gorp-hutzeko nekhen aldera. Iduritzen bazaizkitzu,

egiteko gaitzegiak eta luzegiak direla, eta, gogo-urritasun soberaz, khexatzen zaituztela; has zaite bethi baten egiten, bertzez orhoitu gabe: egizu hura atzartasun ahal guziarekin; ezen bat hori ungi egin eta, ez da izanen bertzerik bat ere, uste baiño pena gutiagorekiñ, egiñen ez duzunik. Ikhusten baduzu trabarik, zohazkote aitziña, eta ez behienere ihes egiñ lanari: izan zaite xoillki beldur, alferkeria zure baitan yaun dadiñ huntaranokoan, non idurituko baitzaikitzu eziñ yasanekoak irela bertutearen pratika lehenbizikoei dairraizten penak, eta konzebituko baituzu hau-kientzat latzdura hañdi bat,a gertu diren baiño lehen.

Horra zer arribatzen zaioten arima bihotz gabetakoei eta gogo-urriei. Bethi etsaiaren beldur dire, zeñ nahi den flakoa, eta zeñ nahi den urrun izan dadiñ. Imayinatzen dire, instant guziaz gauza fastikagarriak manatzera dohazkotea: eta funts gabeko izialdura horrek trublatzen ditu, errepausuaren erdian ere. Yakin zazu beraz, alferkeriaren bizioan badela pozoiñ gorde bat, ez xoillki bertutearen lehenbiziko eraiña ithotzen eta galtzen duena, bainan, oraiño bertu-

te ohituak ere destruitzen eta khasatzen ditue-
na. Yakiñ zazu, harrek zurari egiten diotena,
alferkeriak bizitze spiritualari egiten dioela, eta
bizio huntaz Deabrua, bere saretan gizon gehie-
nak eror-arazteko usantzan dela; eta beregainki
perfekzionera igan nahi luketenak.

Zaude beraz zure buruaren gainean erne eta
atzarria. Zarraizko Othoitzari: zarrizkote obra
onei: Espos arroparen eragiteko, ez egon, Espos
dibinoaren aiñtziñera goateko menean, yauntzi
behar duzun mugaraiño. Egun oroz orhoit zaite,
goizeraiño konzerbatu nahi izan zaituen Jainko-
ak, ez darotzula promes eman, arratserano kon-
zerbatuko zaituela: eta baldiñ aski ona izatu
bada zu arratseraiño bizi-arazteko, ez zaituela
seguratzen, biharamun goiza ardietsiko duzula.
Enplega zazu beraz egunaren ordu baxhotxa,
azkenekoa balitz bezala: ez dezazula deus gogo-
an erabill, Jaiñkoari plazer egitea baizen; eta izan
zaite bethi ikharatua, zure biziaren moment
guziez errendatu behar duzun, kontu hertsia eta
garratz hartaz.

Ez dut orai hitz bat baizen hunen gainean zuri
errateko. Haiñitz nekhatean bazare ere; egiteko

haiñitz xuritzen eta eskuetarik pasatzen baduzu ere, uste izan behar duzu guziarekin, egun guzia galdu duzula, zure nekhe guziak inutillak direla; baldiñ ez baduzu, zure pasionen, eta zure amodio propialaren gaiñean bitoria haiñitz eraman; baldin ez badiotzotzu Jainkoari, egin darozkitzun ungiez, eskerrak errendatu, eta beregainki, Bizia zuretzat ematean egiñ darotzun grazia seiñalatuaz, alferrak dire oraiño zure obra guziak; baldiñ ez badituztu, haren esku miserikordiazkoaren fabore batzu bezala, hartu, Aita guziz On hark, zure bekhatuak urratzekotzat, egorri darozkitzun nahigabe eta punizione guziak.

XXI. KAPITULUA

*Nola ungi balia gaitezken gure
gorphutzeko sensuez eta zer
maneraz sensu hek berak zerbitza-
araz ahal detzakegun, Jaiñkozko
gauzen kontenplatzekotzat.*

Ez da posible, artha handi bat eta atzartasun bethiereko bat gabe, behar den bezala, erregelatzea gorphutzeko sensuak; zeren sensuek gure bihotzean altxara-arazten dituzten mobimendu gaxtoek, traiñatzen bezala baitgaituzte, atseginak eta plazerak itsutuki maitatzera. Eta nola gure bihotza ezin bere baitarik sasia baitditeke halako mobimenduetan; sensuen objektak bereganatzeko, sensu bakoxta enplegatzen du, eta igan-arazten ditu izpiriturairño, objet haukien ideak edo imayinak. Hortik heldu da, (izpirituak eta gorphutzak, batak bertzearekin duten aria hertsia dela kausa), Munduko plazerek berehala objektari propi zaizkon sensuetara hedaturik lauster pozoatzen baitituzte, izurri gaxto batek

bezala, Arimako puxantza edo parte guziak; eta azkenean korrumpitzen baitute Gizon guzia barnean eta kanpoan.

Huna zer erremedio eman ahal dakien hain gaitz handiari. Ez diozozutela sobera libertate utz zure sensuei. Ez detzatzula behiñere enplega xede onentzat baizen, zenbait gauza abantaillos edo baitezpadakoentzat baizen; eta ez behiñere atsegiñ xoillarentzat. Baldiñ ordean, uste gaberik, zure sensuak itzurtzen bazaizkitzu, eta goaten badire Arrazoiñak ezarri dituen mugarriez urrunago, izan tzazu artha, ahalik lausterrena, bihur-arazitzeke: erregela-tzatzu halako maneraz, non atsegin falsoak aurkhitzekotzat, objet inutillei yosiak egoteko usantzan zirenei *sensuek*, usantza har-arazi behar baitzaiote, objet beretarik, salbamenduarentzat eta arimako perfezionearentzat, laguntza haiñitz tiratzekoa; eta Arima, bere baitan zarraturik, kreaturak eza-gutzearen medioz altxa dadiñtzat berehala Jaiñkoaren handitasunak kontenplatzera. Huna ordean zer maneraz usantza hori ardiets dezakegun.

Zure sensuetarik bati agertzen zaionean objet agradagarri bat; ez diozozula objet hari beha kanpora agertzen duen aldetik; baiñan konsidera zazu zure izpirituko begiez. Eta baldiñ ikhusten badiozu zerbait, zure sensuei atsegiñ egiten dioenik; orhoit zaite ez duela edertasun hura bere baitarik, baiñan bai Jainkoa ganik: Hunek, esku ikhus ez daiteken batez, kreatu duela, eta espantatzen zaituzten haren on eta ungi guziak eman diotzala. Ondoan bozkaria zaite ikhustez, izate soberano eta Bere nausi den hura, kreaturetan lilluratzen eta xarmatzen zaituzten hanbat Kalitate on eta ederren Autora eta surtsa dela, Majestate dibino hark, izan ahal daiteken perfekzionerik gorenean, kalitate raro hek guziak poseditzen dituela; eta kreaturarik perfetenak, ez duela deus hurbiltzekorik, haren perfezione infinituen aldean.

Kreatzaillearen obra eder zenbait kontenplazten arrastatzen zarenean, orhoit zaite, gauza hura ez dela deus bere baitarik. Erakhar zazu zure izpiritura hura egin duen Obraria: bakharrik haren baitan emazu zure gozo guzia, eta errozu. O Ene Jaingoikoa! o ene desirkunde guzien obje-

ta! o ene Dohatsutasun baxharra! ala bozkariatzen bainaiz, konsideratzen dudanean ez direla, kreaturretan diren perfekzione guziak, zure Perfekzioneen imayinak baizen; eta Zu zarela hek guzien surtsa eta Autora.

Ikhusten ditutzunean arbolak, landareak, loreak, eta bertze hunelako gauzak; pensa zazu hauk duten bizitzea ez dutela bere baitarik: baiñan bai ikhusten ez dugun Izpiritu guziz botheretsua ganik, zeñari erran behar baitiozu: O Jainko bizia! o ene arimaren Bozkario guzia! o Bizitze soberanoa! baiki: zure ganik, zure baitan, eta zutaz bizi eta handitzen dire gauza guziak lurra-
ren gaiñean.

Abereak ikhustean, altxa zazu halaber zure izpiritua eta zure bihotza, haukiei mobimendua eta sentimenduak ematen diozkanaren aldera: errozu errespaturekin eta amodiorekin: Jaiñko handia! Munduan gauza guziak mobitzen ditutzuna, zeroni bethi mobitu gabe eta berbera zaudezen denboran: bozkariatzen naiz; zeren, Eternitate guzian, baitzaude estatu berean, mudantza batere ezin sofrituzko manera batean.

Presunen edertasunaz lilluratua eta xarmatua, zure burua sentitzen duzunean, separa zazu berehala, ikhusten duzuna ganik, ikhusten ez duzuna; utz zazu gorphutza, eta zatxeizko izpirituari: konsidera zazu, zure begiei eder iduritzen zaioten guzia, ageri ez den surtsa batetik ilkhitzen dela, zeïña baita Edertasun kreatua izan gabea, edo Jaiñkoa: Errazu zure baitan: Horra eziñ ahituzko lthurri hartarikako, Itsaso, nonbre gabeko ontasunak ixurtzen dituen, handi hartarikako, xirripa xumeak. O! ala ene Arima alegertzen baita, Edertasun bethiereko haren baitan pensatzen dudanean, zeren hura baita edertasun kreatu guzien surtsa eta ithurburua.

Ikhusten duzunean norbait, zuhurtziaz, zuzentasunez, mansotasunez, edo bertze zenbait bertutez berregindua; separa zazu halaber, bere baitarik duena, Zerutik errezibitu duena ganik: eta errozu Jaiñkoari: O bertuteen Jaiñkoa! eziñ explika diezazuket ene bozkarioa, konsideratzean, ez dela onik, ez ungorik, zu ganik heldu ez denik; eta gizonen eta kreaturen perfekzione guziak ez direla deus zure perfekzionen aldean. Esker onezko milla akzione errendatzen darozki-

tzut, Jauna, ikhusten dudan kalitate on hortaz; eta yeneralean, ene proximoari eta niri, egin darozkigutzun on eta ungi guziez. Urrikal bekizu ene pobrezia: Orhoit zaite, baitezpada behar ditudala *hunelako edo halako* bertute, zeñen eskasean bainago.

Zenbait obra on egiten duzunean, izan zaite seguratu, Jainkoa dela haren lehenbiziko Kausa, eta zu ez zarela, lanaren egiteko hura zerbitzatzen den, errement bat baizen. Altxatzatu beraz haren gana zure begiak, erraten diozularik: O Munduaren Nausi soberanoa! bozkariarik handienarekin ezagutzen dut, zu gabe, eziñ deus egin dezakedala, eta Zu zarela gauza guzien Autor eta Obrarik lehenbizikoa eta prinzipala.

Zure gogarako zenbait yanari yaten duzunean, egizu erreflexione hau: Ez dela Kreatzaillea baizen, gauza hari aurkhitzen diozun, eta haiñ gozo zaitzun gostua eman ahal diozokenik. Ematzitzu beraz kreatzaille haren baitan zure gozo eta gustu guziak; eta errozu zure buruari: O ene Arima! bozkaria hadi, ikhustez, Jainkoaz landan kontentamendu solidorik ezin izan daite-

ken bezala segurki, haren baitan aurkhitzen dela dohatsutasun osoa eta perfeta.

Zenbait urriñ on eta ezti sentitzen duzunean, begirau-tzu, ez zatxeizkon hartzen duzun plazerari: igan zaite pensamenduz Zerura; eta segurata, urriñ on haren Autora, Jaiñkoa dela, hortaz bozkaria zaite Jainkoarekin: othoitz zazu, eztitasun guzien prinzipioa den bezala, egiñ dezala, arren, zure arima sensuen plazer guzietarik gabetua, deusek ez dezan gibela, haren gana igatetik, insensu on eta ezti baten khea bezala.

Finean zenbait boz eder, edo musikako aire xarmagarri aditzen duzunean, orhoit zaite Jainkoaz, eta errozu: O ene Jaungoikoa! bihotza aleganziaz bethetzen zait, zure Perfekzione dibinotetan pensatzen dudanean. Guziak elkharrekin yuntatuak, ala harmonia guziz eder bat egiten baitute, ez xoillki zure baitan, baiñan oraiño Aingeruetan; Zeruko Izar guzietan; eta kreatura guzietan ere.

XXII. KAPITULUA

*Sensuez ikhusten eta sentitzen
ditugun gauzek, nola lagun
gaitzaketen Meditazionea egiten,
Jesus Kristoren Biziaren eta
Pasioneko Misterioen gaiñean.*

Irakhatsi darotzut, nola altxa ahal zaitezken, kreaturak kontsideratzean, Jainkoaren Handitasunaren kontenplazionera: Ikhas azu orai, salbatzaillearen Bizia eta Pasioneko Misterio sakratuak izpiritura erakhartzeko, kreatura hetaz berez baliatzen. Ez da deus zeruaren azpian, haren orhoitzapena zure gogoan erreberritzeko, gai ez denik.

Konsidera zazu beraz xoillki, Jainkoa dela, erran dugun bezala, gauza guzien hastapena edo prinzipioa; hark eman diotela creaturei, nobleeni ere, izatea, edertasuna, eta dituzten perfekzione guziak. Yar zaite gero espanturekin kontsideratzen Munduaren Nausi soberano hunen Ontasun eta Miserikordia neurri gabekoak; jautsi

eta beheratu nahi izan duenaz geroz, Gizon egi-teraiño, eta Heriotze laidotsu bat, gu salbatzea gatik, pairatzeraño; hortakotz permetitu duela, berak kreatu dituen gizon eskergabeak yunta eta bat egiñ zaitezzen Kreatzaille beraren kontra, hura Gurutzefikatze kotzat. Baiñan nahi baduzu xeheki sartu Jesusen sofrikarien konsideratzen, zein nahi den aldetara beha dezazun, guzietan ikhusiko ditutzu sofrikari heien figurak eta orhoitzapenak.

Baldiñ, konpazionera, ikhusten baditutzu armak, azoteak sokak edo khordak, aranzeak edo elhorriak, seskak, itzeak, martiluak; gogora erakharriko ditutzu haren Heriotzean eta Pasio-
nean zerbitzatu ziren hunelako errementak. Etxola batek orhoit araziren zaitu hura sortu zen Establiaz eta Manyateraz. Zerutik erortzen, eta lurraren gainean hedatzen den uriak, begien aintziñean emanen darozkitzu Odolezko ibaiak, zeññetaz Olibeteko Baratzea busti eta trenpatu baitzuen. Harri eta arroka guziak, haren Heriotzean arraillatu ziren harrien eta arroken hanbat imayina bezala, baliatuko zaikitzu. Iguzkiari edo Lurrari begiratzean, pensatuko duzu, Jesus hill

zenean, lurra ikharatu eta Iguzkia illundu zela. Ura ikhustean, orhoitu zare haren Saihets sakratutik ilkhi zen Uraz: eta gisa hortan bertze milla gauza, zure begiei presentatuko zaiztenez.

Baldin edaten hari bazare arnoa edo bertze zenbait edari; zure buruari proposatuko diozu, Salbatzaille amulsu huni, Burrebuek edatera eman zioten, biñagrea eta khelderra. Zenbait urgurenturen urriñ onak plazer sobra egiten baderautzu; Salbatzailleak, Kalbarioko Mendia-
ren gaiñean, sentitu zituen gorphutz urkhatu ustelduen usaiñ gaxtoa gogora erakhar zazu. Bestitzen zarenean; konsidera zazu, Jaiñkoaren Semea zen arren, Jesus gure haragiaz estali dela; bere Jaiñkotasunaz gu bestitzekotzat. Billuzten zarenean, imayina zaite Jesus ikhusten duzula billuzia eta larru haso burrebuen eskue-
tan, zure amorea gatik azotatua eta Gurutze bati itzaturia izateko menean. Zenbait abarrots handi eta mulzutikako aditzen duzunean, uste izan zazu aditzen ditutzula, yende ozte edo tropela muthiritu batek orduan egin izan zituen, deiha-
dar izigarriak; ziotsotelarik: *Khen! Khen! Gurutzefika zazu gurutzefika zazu.*

Orenak yotzen duen aldi guzietz, orhoit zaite Jesusek Baratzean sentitu zuen bihotzeko olha hartaz, noiz eta ere izatu baizen hillzeko ikhara batez sasitua, ikhustez, preparatzen ziotzoten tormenten iraupena eta krudelitatea: Edo ezpe-
ren orhoit zaite, Jesus Gurutzeari itzatzean, Soldaduek eman zituzten martillu kolpez. Fiñean zer nahi den sofrikari, zer nahi den dolore yasan dezazun, eta bertzek yasaten dituztela ikhus dezazun; yakin zazu segur dela, ez direla eredu-
ra deus, zure Salbatzailleak, bere pasioneko den-
bora guzian, nahiz gorphutzean, nahiz ariman, paraitu dituen tormenten aldean.

XXIII. KAPITULUA

*Bertze zenbait moian eta bide,
okasionetan Gorphutzeko sensuez
ungi baliatzeko.*

Irakhatsi darotzudan ondoan, nola gauza sensibletarik behar duzun zure izpiritua alxatu Jainkozko gauzetara eta Jesusen Biziaren Misterio sakratuetara: irakhatsi nahi darozkizut oraiño bertze zenbait moien, Meditazioneak kreatura beretarik egiteko materiak har detzazuntzat. Ezen nola gustuak diferentak baitire, nahi nuke, Liburu huntan bakhotxak aurki baleza, bere Deboziona kontentatzeko, gai den guzia. Eta hori gauza handizki probetxos bat liteke, ez xoillki yende xehentzat eta sinplentzat, baiñan oraiño izpiritu-dunentzat eta Jaiñkotiarrentzat ere, zeñak ez baitohaz guziak bide beraz perfekzionera, eta zeñak ez baitire orobat gai, Misterioetan haltoki eta hainitz barna sartzeko. Gainerakoan ez duzula beldurrik, Debozinezko pratika mulzu handi batek kausa diezazun nahaskeriarik

edo enbarrasurik. Xoillki entsaia zaite zure eredurakoez baliatzera: har zazu Konfesor zuhur eta prudent baten konseillua: emazu zure burua, oso-oso, haren eskuetan humilitasunekiñ eta fidantziarekin, ez xoillki orai erretara nohan gauzen gaiñean, baiñan gero erranen ditudan guzien gaiñean ere.

Beraz behatzen diozunean, atsegiñ egiten darotzun, eta Munduak estimatzen duen, zenbait gauzari; gogoan finki har zazu, gauza hura bere baitan basa eta herrautsa bezaiñ mespresagarria dela: Zeruko onen eta edertasunen aldean, ez dela deus onik, ez ederrik: Hara behar ditutzula zure ahal eta xede guziak edatu, gaiñerako gauza guziak hemen oiñen azpian ostikaturik.

Begiratzen diozunean Iguzkiari, orhoit zaite zure Arima, Graziaz beregiñdua, Zeruko Argizagi guziak elkharrekiñ baiño, are ederragoa eta ditziantagoa dela: eta kontrara, Graziaz gabetua, Ifernuko illhunbe lodiak baiño are beltzago eta latzgarriago dela. Zure gaiñean den Zerua kon sideratzean, igan zaite izpirituz, Aiñguruak, eta Jañkoa bera dagoen Zeruraño; eta zaude han, garbiki eta saiñduski mundu huntan bizi bazare,

bethiere erregiñatu beharko duzun, Egoitza dohatsuan bezala.

Xoriak kantatzen aditzen ditutzunean, gogora zazu Parabisua, zein etan laudoriozko kantikoak Jaiñkoari kantatzetik, ez baitire behinere gelditzen: Denbora berean othoitz zazu zure Jaiñkoa, errenda zaitzan, arren, digne, bera, eternitate guzian Izpiritu dohatsuen konpainian, laudatzeko.

Presuna baten edertasunak xarmatzen zaitunean, imagina zaite ikhusten duzula Ifernuko Suge ikharragarria, zeina, kanpo Ililluragarri horren azpian gordea, heldu baita zu irestera, eta zuri Graziaren bizia arrapatzera. Errozu aierkude eta mespresio saindu batekin: Oha; aparta adi, Suge madarikatua; alferrik ni gal-arazteko gordetzen haiz. Gero Jaiñkoa gana itzulirik: Zaren benedikatua, erranen diozu, zeren ene Etsaia deskobritu nahi izan baitarotazu, eta haren arte gaxtoetarik libratu izan bainauzu. Ondoan zure Salbatzaillearen Zaurietan barna sar zaite, ihes lekhu segur batean bezala, eta han okupa zazu zure izpiritua, bere Gorphutz sakratuan, zu bekhatutik garbitzea gatik, eta

zuri plazer kriminelak latzdurarekiñ higuñ-araztea gatik, yasan dituen dolore eziñ konprenituzkoez.

Huna orai o bertze moien bat kreatura ederrren xarma borthizenei ihes egiteko. Pensa zazu, orai haiñ xarmagarri zaizkitzun objet horiek, zer izanen diren hill ondoan. Bidean zahoazenean, yakin zazu, egiten duzun hurrats bezanbat Heriora hurbilltzen hari zarela. Xori baten hegala kolpeak, arribera baten goaiak edo superna biolentak abisatzen zaituztela, behiñtzat zure bizia are lausterrago dohala. Gauza guziak iharrosten eta egotzen dituen xirimola batek, guziak trantzitzen ituen ihurtzuria batek, begien antziñean ematen darotzute Azken Juiamenduko egun latzagarria; eta badirurite erraten derauzutela, emateaz, belhauniko zure Juiaren aintzinean, hura adoratzaz, eta othoiztez, arren hel dakituzun, goizdanik prepara zaitezentzat, haren aintziñean segurantzarekin agertzeko.

Baldin ordean bizitze huntan gerthatzen diren, haiñitz akzidentez progotxatu nahi baduzu, huna zer egitea konseillatzen darotzudan. Baldin, konparazionera, nekhatua bazare beroaz

edo hotzaz, edo bertze hunelako zenbait inkomoditatez edo faxeriez; baldin dolorez eta tristeziaz hondatua eta lehertua bazare: berehala bistan har zazu Probidentzia dibinoaren ordean ezin ganbiatuzkoa, zeñak nahi izan baitu, zure onagatik, orai pena hori yasan dezazun; eta zeñek baitdaki, gaitza zure indarren eredura neurtzen. Moien hortaz zure bihurkundera bozkarioekin markatuko diozu Jainkoak zuretzat duen, amodio ezti eta aita-karakoari. Amodio horren frogageri eta segur bat ematen darotzu, hura bere gogara zerbitzatzekotzat, egortzen darozkitzun okasione horietan.

Ikhusirik beraz, egundaiño baiño gehiago estatutan zarela, jaiñoakoari plazer egiteko, erranen diozu: Orainxe ene baitan konplitzen da Aita on haren borondatea, zeñak bere Misericordiaz, mende guziak baiño lehen, ordenatu baitu egun sofri dezadan pena eta nekhe hau: izan bedi eternitate guzian benedikatua. Zenbait pensamendu on heldu zaitzunean, fermuki sinhetsazu Jainkoa ganik ethorri zaitzula; eta on eta ungi guzien Aita liberal hari esker onezko akzio-ne errespetuzkoenak errenda diotzotzu. Zenbait

debozinezko Liburu irakurtzen duzunean, iduri bekizu Izpiritu saindua mintzo zaitzula, eta Liburu hura hark berak egin izan duela.

Gurutzefikari begiratzen diozunean, kontsidera zazu hura, Jesus-Kristo zure Kapitainaren Bandera bezala; eta yakiñ zazu, hartarik den gutiena urruntzen bazare, zure etsayik kruelenen eskuetara eroriko zarela: eta baldiñ segitzen baduzu, egun batez Zeruan, triunfan eta bitoria-ren markak eskuan, sartzeko digne errendatuko zarela.

Ama Biryinaren imayina bat ikhusten duzunean, ofrei diozozu zure bihotza miserikordien Ama huni: Zure bozkarioa marka diozozu, zeren artha eta leialtasun oso batekin, Jaiñkoaren nahia bethi konplitu duen; zeren zure Salbatzaillea mundura eman eta bere esneaz hazi izan duen. Fiñean eskerrak errenda diotzotzu Deabruaren kontrako Guduetan, hura errekeritzen dutenei, ematen diozten laguntza handi eta bereziez. Saiñduen imayina guziek orhoit-araziko zaituzte Jesus-Kristoren Soldadu yeneros hetaz, zeinek heriotzerañokoan kuraioski gudu-

katurik, pasatu eta egiñ baitute, Gloriaren ardiesteko, zuk segitu behar duzun bidea.

Zeiñ nahi den mugaz adi dezazun ezkillatzen, *Angelus* edo Biryinaren othoitzaren hiruretan erran dadiñzat; zenbait Meditazione labur eta erreflexione xume egin dezakezu *Agur-Maria* baxhotxaren aiñtziñean erraten diren hitzen gainean. Lehenbiziko ezkillatze kolpean, Maria gaitan bidaldu izan zen Mezu edo Enbaxada handiaz, (zeiña izatu baita gure Erresketamenduaren has-tapena), eskerrak humillki Jaiñkoari bihur diotzo-tzu. Bigarren kolpean: Bozkaria zaite Mariarekin; zeren Jaiñkoak, bere humilltasun perfeta gatik, Jainkoaren Amaren dignitatera altxatu duen. Hirugarren kolpean: Adora zazu Jaiñkoa Seme, Gizon egina: eta bihur diozozute halaber haren ama sainduari eta Gabriel Arkanyeluari merezi duten ohorea. Kolpe baxhotxean on da buruaz agur egitea errespetuzko seiñaleztat, eta bere-gaiñki azkeneko kolpean.

Ama Biryinaren alderako debozionezko praktika hauk, muga guzietz orobat egiñ daitezkenak dire. Baiñan, huna bertze batzu egunaren muga suerte batzuetako: arratseko, goizeko, eguerdi-

ko propiakoak, Jesus-Kristoren pasioneko Misterioari darraizkonak. Ezen behar dugu maiz orhoitu Ama guziz samur hark orduan pairatu zuen Martirio dorpheaz; eta eskergabetasun ahalkagarri bat liteke, orhoitzapen huni huts-egitea.

Arratsean, gogora erakhar azu, Ama on hark sentitu zuen dolorea, ikhustean, Jesus Olibeteko Baratzean, odolezko izerdi batez trenpatua, eta handik preso eramana ta nolakoak izatu ziren gau hartan guzian Mariaren bihotzeko Khexaguneak. Goizean, sar zaite haren dolorean; ikhustez Seme maite hura, laido eta hiroiekiñ eramana, Pilatusen eta Herodesen aiñtzinera; hilltzera kondenatua; eta suplizioko lekhura goatean, Gurutzea garraiatzera, azote kolpeka, bortxatua. Eguerdian, iduri bekizu ikhusten duzula, Ama doloratu huneñ bihotza erdiratu zuen, Ezpata kruela; hunen prezencian, Gurutzefikatu zutenean Jesus adozatzekoa, eta hunek azken hatsa etxatu zuenean; eta oraiño, hill zenean ere, lantza batez saihetsa ideki ziotenean.

Erreflexione on hauk egiñ detzaketzu, Biryina saiñduaren doloreen gaiñean, ortzegun arratsetik, larunbat eguerdiraiño: eta bertze hek egiñen

ditutzu gainerako egunetan. Guziarekiñ segi zazu, on zaitzun deboziona; bihotza, ikhusten duzun gauzez mobitua, sentitzen duzunaren araber.

Fiñean hitz gutiz zuri errateko, nola behar duzun zure sensuez baliatu: manaia tzatzitzu halako gisaz, non, ez baitiozu behiñere utziko zure bihotzean entradarik, ez eta amodio sobrarik, ez eziñ garaituzko herrarik ikhusten ditutzun gauzentzat. Aitzitik, erregelatuko baititutzu zure nahi guziak, Jainkoaren borondatearen gainean; deus maitatzen eta higuiñtzen ez duzula, Jaiñkoak maita dezazun eta higui dezazun nahi duenik baizen.

Hauk guzien ondoan abisatzen zaitut zure sensuen erregelatzeko emanik heldu natzaitzun pratika diferent haukien nonbre handi huntan, ez dela ene deseñua, hautaz zure okupazione prinzipala egitera, zu obligatzea. Ezen behar duzu hurren bethi zure baitan zarratua eta Jaiñkoarekin yosia egon: behar duzu okupatua izan, barnean ditutzun biziorako inklinazioen gudukatzen, eta kanpoan bizio hei kontra dohazkoten bertutezko akzionen egiten. Ez dut beraz bertzerik

igurikitzen, baizen hautaz balia zaitezzen, baitezpadako okasionetan. Ezen norik bere burua obligatzea, onak diren arren, hanbat pratika kanpokoan konplitzera; ez da hori Bizitze izpiritualean haiñitz aiñtziña goateko moiena. Pratika hauk aproposki eta pheituz enplegatuak ez direnean, ez dire baliatzen izpirituaren nahasteko, amodio propialaren entretenitzeko, ariñtasunaren emendatzeko, eta munduko tentamendu gaxtoei bide emateko baizen.

XXIV. KAPITULUA

Mihia nola ungi goberna eta erregela daiteken.

Bridatik borthizki atxikia izan behar du gizonaren Mihiak; zeren naturalki guziek plazer hartzen baitugu, sensuei atsegiñ egiten dioten gauzez mintzatzeaz. Mihiaren abiadura komunzki heldu da banitate suerte batetik, zeñak sinhets arazten baitaroku, garen baiño, argituagoak garela; eta banitate hura da kausa gure pentsamendu propialez espantituak, plazer handirekiñ hauk kondatzen baititugu aurkhitzen garen lekhetan; guziez gorago solhasa egiten baitugu; eta oraiño pretenitzen baitugu mundu guziaz entzunak izatea.

Hitz gutitan eziñ zarra daitezke bizio higuñ huntarik sortzen diren kalte eta gaitz guziak. Xehadurarik gabe yeneralean erran ditekena da, hunek kausatzen duela alferkeria; agertzen gure baitan iñorantzia eta errhokeria handi bat; berekiñ dakhartzkela medisenzia eta gezurra; iraungi-

tzen duela Debozionatearen Kharra; borthitzten dituela pasione muthiriak; eta mihiari usantza ematen dioela, ez errateko hitz inutillik eta banorik baizen.

Bizio hunen korreyitzeko, huna zer egitea konseillatzen darotzudan: ez hitz sobra egiñ; eta beldurrez nekha detzatzun gogotik entzuten ez zaituzten presunak, ez zaitezela mintza hekien aiñtziñean; ez eta gogotik aditzen zaituztenen aiñtziñean ere; beldurrez, solhasa segitzean, zerbait behar ez den itzur dakizun. Begirauztu miñtza goregi eta nausikara: ezen hunelako thonuak ez diho plazer egiten aditzailleari; eta agertzen du mintzatzaillea bere buruaz hainitz hartua eta urguillutsua dela.

Ez zaitezela behiñere miñtza, ez zure buruaz, ez zure ahaideez, ez zuk egiñikako gauzez; non ez zaren hortara eziñ bertzez bortxatua: eta nezesario iduritzen zaitzunean ere, mintza zaite horietaz hitz gutitan eta modestiarekiñ. Baldiñ ordean bere buruaz haiñitz mintzo den norbait aurkhitzen baduzu, ez dezazula horrengatik mespresa; baiñan begirau-tzu hark bezala egiñ, deus erraten ez balu ere, bere hutsen ezagut-

arazteko gai den gauzarik baizen, eta bere burua ahalkerian eror-arazitzekorik baizen. Ez zaitezela ahalik gutiena baizen mintza zure lagun proximoaz, eta hari daozkon gauzez; non ez duzun hartaz ungiak errateko okasionea. Lakhet bekizu Jaiñoaz mintzatzen, beregaiñki haren, gizonen alderako karitateaz edo amodiaz: ordean huntaz ere behar bezala mintza ez zaitez beldurrez, adi-tzatzu bertzek erraten dituztenak, eta hek bethikotz gogoan fiñkatzera ensaia zaite.

Munduko egitekoez eta erran-merranez denaz bezanbatean: beharritaraiño heldu bazaizkitzu, ez diozozutela permeti, sar daitez bihotzeraño. Bihotzak oso-osoa Jaiñoarena eta Jaiñoarekiñ izan behar du. Baldiñ ordean obligatua bazare, ihardestekotzat, mintzo zaitzun presuna entzutera; bethi zenbait begiratze altxa zazu Zerura: Han erregiñatzen du zure Jaiñoak; eta handik Majestate guziz on hark ez du errefusatzen, zu, herbal eta ezdeusaren gaiñera, bere begi miserikordiazkoak itzultzera. Errepasa-tzatzu ungi erran nahi ditutzun hitzak, bihotzetik mihira igan baiño lehen: ahalik obekiena guziak pisa-tzatzu; zergatik bethi aurkhituko baituzu

haiñitz, gutitu behar denik. Eta erran behar direla uste ditutzunak, berezi ditutzun ondoan ere; khen zazu oraiño hautarik parte bat: ezen guzien burua aurkhituko duzu sobra mintzatu zarela.

Ixilltasuna Gudu izpiritualean laguntza handi bat da eta hau gardatzen dutenek bere buruei agiñ diozokete bitoria eramanen dutela. Ezen segur da, haiñek komunzki badutela bere buruentzako mezfidantzia, jaiñkoa baitan behar den fidantzia, Othoitzarentzako gustu ageri bat, eta bertutezko pratikentzat errextasun handi bat.

Ixilltasuna maita ahal dezazuntzat, kontsidera-tzatzu hartarik heldu diren on eta abantail handiak, eta mintzatzeko frankiatik sortzen diren gaitz eta kalte nonbre gabekoak. Diot gehiago: Nahi baduzu guti mintzatzeko usantza hartu, zaude ixillik, mintzatzeko suieta duzunean ere; baldiñ zure ixiltasunak ez badio, ez zuri, ez lagun proximoari kalterik ekhartzen. Ihes egiozute beregaiñki Mundutarren solhas guziei: gizonen konpañiak utzirik, hauta zazu Aiñgeruen, Sainduen, jaiñko Beraren konpañia. Fiñean Orhoitzaite, nolako gerla hasi duzun; eta segurki, sol-

has inutilletan doztatzeko astia izatetik urrun,
doi-doia izanen duzu hatsaren hartzeko denbora.

XXV. KAPITULUA

Bere Etsaiak gudukatzea eta bentzutzea deliberatu duen, Jesus-Kristoren Soldaduak, ahalik gehiena ihes egiñ behar diote, bere bihotzeko Bakea nahas edo altara diozoketen gauza guziei.

Barneko bakea galdu dukegunean, hunen kobratzeko indar eta ahal guziak enplegutuan eman behar ditugu: baiñan zer nahi den mundu huntan gertha dakigun, ez da deus gai, hura guri arrapatzeko, edo nahasteko, gerorrek nahi ez badugu. Konzebitu eta sentitu behar dugu, egia da, gure bekhatuez eta gure hutsez dolore handi bat: ordean dolore hunek izan behar du, haiñitzetan erran dudan bezala khexagabea eta neurthua. Orobat: urrikaldu behar zaizkigu bekhatoreak, eta bederen bihotzez, hek galtzeaz, nigar egiñ behar dugu; ordean gure urrikaltasunak behar du izan bihotzekoa, khexagunerik eta

trublerik gabea, Karitate phuru baten efetua bezala.

Mundu huntan suiet garen gaitz infinitu batzuez denaz bezanbatean, hala-nola eritasunak, zauriak, heriotzea, adiskiden eta hurkoen galtzea, izurritea, gerla, su-ha-lama, eta bertze hainitz akzident triste, (zeiñei guziek ikhararekin behatzen baitiote, gorphutza, bethi sofritzetik ihesi dabillana, zaurtzen duten gauza batzuei bezala) horiek guziak, Graziaren laguntzarekin batean, ez xoillki Jainkoaren eskutik bihotzez topa edo akzeptata detzakegu, baiñan oraino horietaz bozkariatzeko suietak egiteko gai gare; konsideraturik, direla, edo bekhatoren garbitzeko eta salbatzeko, punizione arinak; edo yustuek merezimendu gehiago egiteko, okasione seguirak.

Bi arrazoiñ haukien gatik loriatzen da Jainkoa bera ere gure gaiñera egortzean: baiñan gauza segura da, gure borondatea Jainkoaren Borondateari sumetitua dagoeiño; aflikzionerik eta nahigaberik handienen erdian, bethi fermu egonen garela, eta izpiritua soseguan eta pausuan konserbatuko dugula. Yakiñ behar duzu, alabainan

khexagune suerte guziak, Jainkoaren desgogara-ko direla; zeren nolanhikoak izan daitezen, eziñ baititezke bekhatugabeak, eta sortzen baitire bethi funts gaxto batetarik, zeina baita Amodio propiala. Urrundik ikhustera entsaia zaite beraz, khexa edo inkieta ahal zaitzaketen gauza guziak, eta zaude aiñtziñkar preparatua hek pazienza-rekiñ yasatera. Konsidera zazu, presenteko gaitzak, zenbat ikharagarriak agertzen baitire ere, funtsean eta bere baitan ez direla gaitzak; on egiazkoez eziñ gabe gaitzaketela; Jaiñkoak edo egortzen, edo permetitzen dituela, erran ditugun arrazoiñak direla kausa, edo bertze zenbait arrazoiñen gatik, zeinak, guretzat diren arren gordeak, eziñ izan baititezke haiñitz yustuak baizen.

Manera hortan, izpiritua bethi higoala eta orobata konzerbatzen duzula, bertutean haiñitz progotxatuko duzu, bizi huntako akzident diferentien erdian. Non ez: zure nekhe eta trailla guziak inutillak izanen dire, eta ez zaizkitzu Zerukotz deusentzat baliatuko. Gehiago dena: Izpiritua tehar eta inkiet izanen duzuiño, Etsaiaren atakadei pharatua egonen zare ezagutzeko ahalik gabe zein den bertuterako biderik segure-

na, xuxenena eta laburrena. Sathanek bere ahal guziak egiten ditu, gure baitarik arimako Bakea khasatzekotzat; zeren baitdaki, Bakea den lek-huan Jaiñkoa edireiten dela, eta Miserikordiaren efetu miragarrienak obratzen direla bakea duten-en fagoretan. Arrazoiñ hunengatik, bere fiñezia eta malezia guzia enplegatzen du guri bake hura arrapatzeko: eta gu tranpan eror-araztekotzat, denaz bertzelakoa agertzen da; sor-arazten eta inzpiratzen darozkigu deseñu, iduriz onak eta funtsean gaxtoak direnak: ordean hauien gaxto-tasuna hainitz maneraz deskobri daiteke, eta guziz, zeren gure barneko sosegua eta bakea nahasten baitute.

Gaitz hain perillos bati erremedio emateko-tzat, etsaia zenbait mobimendu fresko, eta desir-kunde berri gure baitan alxatzera ensaiatzen denean, ez dizogutela berehala mobimendu eta gutizia haur bihotza zabal; lehenik ukho egiogu-ten amodio propiala lausenga dezaketen afek-zione guziei; ofrei diozogun Jaiñkoari desira berri hura: errekeri zagun, arren ezagut-araz dieza-gun, ea harenganikakoa den, ala Sathanengani-kakoa; eta izan dezagun artha horren gaiñean

konseillu hartzeaz gure Diretora ganik. Segur garenean ere, gure bihotzean sortzen den desir-kunde bat Jaiñkoaganik heldu den mobimendu bat dela; ez dugu hura konplitzeko eginbidetan eman behar, non ez dugun aiñtziñetik gutitzen eta mortifikatzen, hura konplitua ikhustez, dugun lehia sobraniazkoa: ezen obra on bat, hunelako mortifikazione batez aiñtziñatua, Jaiñkoari haiñitzez agradagarriago zaio, lehia eta Khar berelako batekiñ egiten litekena baiño; eta maiz obra onak hañitzez gutiago plazer egiten dio, ezen-ez aiñtziñeko mortifikazioneak. Manera hortan gutizia gaxtoak khendurik eta hastandurik, nahi onak ere konplitzen ez ditugula naturaren mobimendu guziak itho ondoan baizen, sosegu oso eta perfet batean konzerbatuko dugu gure bihotza.

Hortarakotzat mesprezatu behar dire konzienziako har suerte batzu Jaiñkoa ganik heldu direla diruritenak, (egiazko defauten gaiñean konzienziak zeren erreporxu egiten darokun), baiñan funtsean Izpiritu gaxtuak sor-arazten dituenak, ondoa agertzen diren bezala. Baldiñ konzienziako errenkura hek baliatzen bazaizki-

gu, gu beheitzeko eta humiliatzeko baldin obra onak egiteko khartsuago errendatzen bagaituzte; baldin Jaiñkoaren Miserikordian behar den fidantzia gutitzen ez baderaukute orduan erremesiatuak errezibitu behar ditugu, Zeruko fagore batzu bezala. Baiñan baldiñ konzienziako erreporxu hek kausatzen badaituzte gure baitan xagrinak eta trubleak, kuraiea gal-arazten badarokute, gure eginbideak konplitzeko uzkur, gogo urri eta berantiar errendatzen bagaituzte, sinhe-tsi behar dugu Etsaiaren artifizioak direla, eta hek entzuteaz khasu guti egiñik, konportatu behar gare ordinarioan bezala.

Ordean khexagune suerte hautaz bertze alde, nola gure xagrinak ethortzen baitire gehie-nean mundu huntako kaltetarik eta gaitzetarik: haukien gaiñean gardian egoteko, bi gauza egiñ behar ditugu.

Bata da konsideratzea, gaitz hauk gure bitan zer efetu egiten duten, eta zertaz gabe ahal gaitzaketen: ea khentzen eta gutitzen darokuten perfet izateko dugun lehia, ala khentzen eta iraungitzen duten gure Amodio propiala. Baldiñ ez badiote miñik egiten gure amodio propialari

baizen, zeïña baita gure Etsai guzien Buruzagia, ez dugu behar errenkuratu: aitzitik, bozkariorekiñ, eta ezagutzazko sentimenduetan sarthurik, errezibitu behar ditugu, Jaiñkoak egortzen darozkigun Grazia egiazkoak bezala, ematen darozkigun laguntza handiak bezala. Baldiñ ordea perfektioneko bidetik gu makhur-arazteko gai badire, eta bertutea higuïñ-araz badiezagukete, ez dugu horrengatik kuraie gutiago izan behar, ez eta barneko sosegua eta bakea galdu behar: geroxeago ikhusiko dugun bezala.

Bigarrena da, Jaiñkoa gana gure izpiritua altxatzen dugula, ez axolaki edo kantitu gabe errezibitzea haren eskutik heldu zaikun guzia: seguratuak, egorriko darozkigun gurutzeak berak ere, baliatuko zaizkigula infinitu bat ontasunen surtsatzat, zeïñ ontasun negliyatzen baititugu, ezagutu faltaz.

XXVI. KAPITULUA

*Zer egiñ behar den, zenbait zauri
errezibitzen denean Gudu
izpiritualean.*

Gure burua kolpatua sentitzen duzunean, erran nahi da: zenbait hutsetan erori zarela ikhusten duzunean ala flakotasun phuruz ala berariaz eta maleziaz, ez zaitezela horrengatik sobra dolora; ez zaitezela txar eta khexa: baiñan zakizko bere Jaiñkoari, eta errozu fidanzia oso eta humill batekiñ. O Ene Jauna, eta ene Jaiñkoa! Orai, bai orai, naizena, agertu naiz: ezen zer igurik daiteken ni bezalako kreatura herbal eta istu bat ganik, errebelatzea eta erortzea baizen?... Trika zaite aphur-bat pensamendu hortan; zure baitan gorri eta ahalkatzekotzat, eta zure hutsaz dolorea eta urrikia konzebitzekotzat.

Gero, trublatsu eta nahasi gabe, zure kolera guzia, itzul azu zure pasione nausituen kontra.

Jauna! erranen duzu, ala krima are handiago-
etan eroriko bainintzen zure Miserikordia infini-
tuak lagundu eta atxiki ez banindu.

Errenda diotzotzu ondoan esker-onezko milla
akzione Miserikordien Aita huni: maita zazu
egundaiño baiño gehiago ikhustez, egiñik heldu
zaizkon afruntuaz zure kontra sentikor eta herra-
tsu izatetik urrhun, berak oraiño eskua hedatzen
darotzula; beldurrez zenbait halako desordene-
tan berriz ere eror zaitez.

Fiñean segurantzza oso batekiñ errozu: Erak-
huts zazu, o Ene Jaiñkoa, nor eta zer zaren: ager
zazu, ni bekhatore gaxoaren eta humiliatuaren
gaiñean, zure Miserikordia dibinoa: barkha die-
tzadatzu ene hoben guziak: ez dezazula permeti
zu ganik, den gutiena ere, aparta eta separa
nadiñ: zure Graziaz borthitz nazazu hartaraiño,
non ez baitzaitut gehiago behiñere ofensatuko.

Hunela mintzatu ondoan, ez zohazela zunda-
tzera, ea zure hutsa Jaiñkoak barkhatu darotzun
bai ala ez: ezen hori denbora galtzea eta inutilki
khexatzea liteke. Holako zundatzen suertean,
bada haiñitz superbiotasun eta Deabruaren arti-
fizio, zeinak, alegia ederren azpian, zuri pena

egitea billatzen baitu. Horlatan larga zazu zure burua Jaiñkoaren Miserikordia gana, eta segi-tzatzu zure obra onak eta Debozinezko praktikak, hutsik egiñ ez bazindu bezanbat sosegurekiñ eta trankilitaterekin. Egun berean haiñitz aldiz Jaiñkoa ofensatu baziñdu ere, ez behiñere gal, haren baitan duzun fidantzia. Egizu nik orai erran darotzudana, lehenbiziko aldian bezala, bigarren, hirugarren, eta duzula zure buruarentzat aierkunde eta mespresio handiago bat, eta bekhatuarentzat herra eta hodio borthitzago bat: eta egon zaite ethorkizunean hobeki zure gardien gaiñean. Sathani handizki miñ egiten dio haren kontra gudukatzeko molde hunek; zeren baitaki hunek Jaiñkoari plazer egiten dioela, eta lehena-go berak garaitzen zuen presuna beraz bentzuetua izateaz ahalkatua eta gorritua, bethi gibela erretiratzen baita. Horra zergatik bere artifizio guziak enplegatzen dituen, gudukatzeko molde hau utz-arazteko: eta maiz ardiesten du nahi duena, gure bihotzen gaiñean atzarriak egoteko dugun artha eskasa dela kausa.

Gaiñerakoan zenbatenaz metoda hau aurkhitu baituzu gaitzagoa, hanbatenaz egiñ behar

ditutzu eseiu handiagoak zure burua bortxatze-ko, eta difikultateak garaitzeko: Eta ez zaitezela kontenta aldi batez xoillki pratika on hau enplegatzeaz; bainan maiz eta maiz berriz lot zakizko; bekhatu bakhar batez baizen, zure konzienzia kargatua aurkitzen ez bazindu ere. Baldiñetaria beraz bekhatu batek, (zeiñetan erortzeko zorigaitza izatu baituzu), kuraiea gal-arazterañokoaan khexatzen bazaitu; egiñ behar ditutzun gauzetarik lehenbizikoa da, zure Arimako bakea eta Jaiñkoa baitango fidantzia kobratzea. Ondoan behar duzu Zerura bihotza altxatu, eta fermuki sinhetsi, huts-egiñaz batzuetan sentitzen den khexaguneak, ez duela bere xede eta objetzat Jainko ofensatua; baiñan bai merezi ditugun penak eta gastiguak, zeinñen beldurrago baitgare, bertze gaiñerako guzien baiño.

Haiñ desiratzekoa eta haiñ nezesarioa den sosegu hau kobratzeko moiana, da, ondoan ez niholere zure hutsa gogora erakhartzea: bainan begiratzea Jaiñkoaren Ontasun infinituari, zeinña bethi prest baitago barkhatzera, eta zeinñak desiratzen baitu miserikordia egitea krimarik itsusienak eta beltzenak egiñ dituen bekhatorerik han-

dienari, eta ahal guziak enplegatzen baititu, hunelakoak bere egiñbidera bihur-arazitzeko, berekiñ hersiki yunta-arazteko, mundu huntan bide onean ibill-arazi ondoan, bertzean bethikotz dohatsu errendatzeko. Reflekziona hauk, edo hunelako bertze zenbaitek zure izpiritua sosegatu duten ondoan, bihur zaite kuraioski orduan, zure bekhatua konsideratzera, eta erran ditugun guziak ponturen pontu garda-tzatzu.

Fiñean Penitenziazko Sakramenduan, (zeiñetara maiz hurbiltzea konseillatzen baitarotzut) erakhar atzu zure begien aiñtziñera zure huts eta falta guziak, eta diren bezalakoak garbiki deklaratu diotzotzu zure Aita izpiritualari, berriberrian, sentitzen duzularik dolore min bat, hetan erori izanaz; eta hartzen duzula borondate berri eta fermu bat, ez zarela gehiago hetan behinere eroriko.

XXVII. KAPITULUA

*Nola duen Satanek, bertuteari lothu
nahi zaizten presunak, bai eta
bizioan oraiño ehortziak
daudezenak, tentatzeko eta
enganatzeko antzea eta usantza.*

Gauza segur bat da, Deabruak ez duela bertze pensamendurik, gizonen gal-araztea baizen; eta ez dituela guziak manera berean atakatzen. Zuri beraz erakhasteko haren fiñezia eta artificioetarik zenbait, markatuko darozkitzut yende suerte diferentak estatu eta disposizione diferentetan aurkhitzen direnak. Batzuek bekhatuaren esklabo dire, eta ez dute bere gatheak hausterera pensatzen ere. Bertze batzuek nahi lukete bada, esklabotasun hartarik ilkhi: baiñan deus ez dute egiten bere buruak libratzeko. Bertze batzuek uste dute bide onean direla; noiz-etere baitire urrhunduenak eta markhurtuenak. Bertzeak fiñean, bertutearen gradurik gorena ardie-tsi ondoan, erortzen dire egundaiño baiño triste-

kiago eta perilloskiago. Ondotikako Kapituluetan
mintzatzera goaz yende suerte hautaz guziez.

XXVIII. KAPITULUA

*Deabruak zenbat arte gaxto
enplegatzen dituen, bekhatuan
eror-arazi dituenak, behiñ-bethikotz
gal-arazteko eta ostiñatzeko.*

Satanek behin arima bat bekhatuan eror-arazi duenean, ez da maleziarik, enplegatzen ez duenik, hura are gehiago itsutzeko, eta haren izpiritutik urhutzeko bere estatu ondikoak ezagut-araz diozoken guzia. Oraiño kontentatzen balitz, jaiñoak egortzen diotzan, pensamendu onak haren baitan ithotzeaz; eta hunelakoen lekhan, gaxtoak inspiratzeaz! Baiñan urhunago goaten da. Hirriskua den okasionetan barna sar-araztera enzaiatzen da; segadak hedatzen diotza, berriz ere eror dadiñtzat edo bekhatu berean edo bertze bekhatu itsusiagotan. Hortik heldu da, Zeruko argiez billuzia, geroago eta gehiago berretzen eta emendatzen baititu bere krimak eta desordeak, eta gaxtakerian gogortzen baita. Horlatan uztai baten barnean

balitz bezala, gelditu gabe, bira-birada billa, eta buruz behera badoha illhunbetarik illhunbetara, lezetik lezera, bethi urrhuntzen dela hanbatenaz salbamenduko bidetik, eta emendatzen duela bere bekhatuen nonbrea; non ez duen Jaiñkoak, laguntza berezi eta nihoiz ez bezalako batez atxikitzen eta sustengatzen.

Gaitz huni eman behar zaion erremedio berehalakoa da, hunelako arima gaxo batek errezibi detzan, kontra egiñ gabe, Jaiñkoaren inspirazio-neak, zeïñek illhunbetarik ilkhi-araziko baitute argi handira, eta biziotik bertutera: eta su eta khar handirekin berehala oihu egiñ dezan: Ah, Jauna! hel zakizkit; ethor zaite, arren, lauster, ni laguntzera; ez dezazula permeti, nagoen gehi-go ehortzia herioaren eta bekhatuaren thonba beltzean. Haiñitz aldiz erran behar ditu hitz hauk berak, edo bertze hunelakoak: eta ahal badegi, goanen da berehala bere Aita izpirituala gana, yakitera zer egiñen duen, eta hersten duen etsaiaren kontra hari armak galdegitera. Baldiñ ordu berean ezin goan baditeke: izan behar du errekortsu Gurutzefika gana, bekhokia lurrarekin yosirik, ahuspez haren oinetan ematen dela.

Othoitztuko du oraiño aldartez Zeruko Erregiña, eta errekeritu beharko du urrikal dakion: ezen den bezalako dohakabeak segurki yakiñ ahal dezake diliyenzia huntarik dohala eta dependitzen dela, hark bitoria eramatea; ikhustera goazen bezala heldu den Kapitulan.

XXIX. KAPITULUA

*Izpiritu gaxtoa baliatzen den
imintzionez, konbertitzetik osoki
gibelatzeko yende batzu, zeñak,
bere konzienziaren estatu tristea
sentiturik eta ezaguturik,
konbertitzeko zenbait nahiki baitute:
Eta nondik heldu den, haukien
borondate onak gehienez baitire
efetu gabeak, edo obretan ez
emanak.*

Bere konzienziako estatu gaxtoa ezagutzen dutenek, eta hartarik ilkhi nahi luketenak, usten dituzte bere buruak enganatzera Satanez, zeñak bere ahal guziak egiten baititu, haiñak seguratzeko badutela oraiño denbora eta ephe luze bat bizitzeko; eta hala, bere konbersioea segurki luza ahal dezaketela. Malizioski begien aintzinean ematen diote, hunelako hauzi, bertze gauza guziak baiño lehen, xuritu behar dutela; duten enbarazu handi batetik libratuak izan

behar dutela: non ez, eziñ lot dakizkokela ziñ-ziñez bizitze izpiritualari, ez eta soseguan konpli Jaiñkozko pratikak.

Hauxe da tranpa bat, zeinetan haiñitz yende uzten baitituzte bere buruak hartzera, eta egunoroz hartuak aurkhitzen baitire. Baiñan ez da nihor hunen kausa billa dezakenik nork bere lazotasunean baizen: eta hau, egiteko batean, zeinetan kestione baita salbamenduaz eta Jaiñkoaren Gloriaz. Bakhotxak beraz, utzirik hitz hauk: Bihar, bihar, erran beza: Gaurdanik, orai beretik. Eta! zertako Bihar? Nondik dakit biharko eguna ikhusiko dudala? Eta hortaz osoki seguratu banintz ere: salbatu nahi izatea othe da bada ene penitentzia eta konbersioea luzatzea? Bitoria ardietsi nahi izatea othe liteke, nork bere buruari zauri berriak egitea?

Beraz eziñ dudatuzko gauza bat da, aintzineko Kapitulan markatu dugunari bezala, enganio huni ere ihes egiteko, Zeruko inspirazionei berehala obeditu behar zaiela. Berehalatasun mintzo naizenean, ez dezazula uste izan mintzo naizela nahiki ariñez: borondate flako eta agorrez. Hune-lako nahikiek hainitz presuna tronpatzen dituzte

haiñitz arrazoiñez. Lehena da, zeren hunelako borondatexkiak ez baitire funts onezkoak, eta ez baitire heldu nork bere buruaz duen Mesfidantziatik, eta Jaiñkoa baitan den Fidantziatik. Gero zer gerthatzen da? Arima, urguilleria gorde batez bethea, itsutzen da hartaraiñokoan, non bertutearen itxura baizen ez dituzten praktikak hartzen baitditu bertute segur eta solido baten-tzat. Gaitz hunen erremedioak, eta hau ezagutzeko moianak heldu dire, Jaiñko beraren Miserikordiatik, zeñak permetitzen baitu eror gaitetzen; gure erorikoen medioz xuhurtuak eta argituak, utz eta gal dezaguntzat gure indarren gainean dugun fidantzia, Jaiñkoaren Graziaren gainean behar dugun fidantziari lotzeko; eta billuz gaitезentzat, hurren ezagutzen ez dugun, gure urguilleriaz, gure buruen ezdeustasuna humillki ezagutzeko eta aithortzeko. Beraz gure deliberazione on guziak eziñ daitezke efetuzkoak, non ez dire fermuak eta iraupenezkoak: eta eziñ izan daitezke fermuak eta iraupenezkoak, non ez diren funtski pausatua gure buruazko mesfidantziaren, eta Jaiñko baitango fidantziaren gainean.

Bigarren arrazoiña da: Zenbait desirkunde on heldu zaikunean, ez diogu gure buruari proposatzen bertutearen edertasuna eta exselenzia baiden, hunek bere baitarik duen arren nahikirik flakoenak bereganatzeko indarra, eta ez gare baterre Orhoitzen, bertute hura ardiesteko nezesario diren nekhez eta traillauez. Horra zergatik arima putrun eta xotal bat, den trabarik xumetak arreatzen eta izitzen duen, eta hasi duen obra zerk utz-arazten dioen. Har zazu beraz usantza, bertuteak ardiestean edireten diren trabak, bertuteak baiño lehen, gogora erakhartze-koa: traba haukiñ gaiñean zure izpiritua maiz okupa zazu, eta okasionearen edo atizaren arabera, hek garaitzera prepara zaite. yakiñ zazu gaiñerakoan, edo zure buruaren bentzutzeko, edo zure etsaiei kontra egiteko zenbatenaz izanen baituzu animo gehiago, hanbatenaz agertuko zaizkitzula traba hauk ariñagoak eta bentzutzeko errexagoak.

Hirurgarren arrazoiña. Gure deseñu onetan ez dugu hanbat konsideratzen bertutea eta Jaiñkoaren nahia, nola gure intres propiala: eta hau miazetik gerthatzen da, konsolazione handiak,

beregaiñki nahigabetan, errezibitzen ditugunean. Ezen gure gaitzentzat solayimendurik batere mundu huntan aurkhitzen ez dugun orduan, hartzen dugu, behinbethikotz Jainkoarekiñ bat egiñak egoteko deseñua, eta bertutezko obrei baizen, ez aplikatzeko deliberazionea. Parte huntarik hutsik ez egitekotzat, Zeruko Graziez usaia gaxtoa egitetik ungi begira gaitezen: izan behar dugu humill eta erne gure deseñu onetan: ez gakizkola libra debozionearen zelo indiferent bati, zeñak, eziñ konpli detzakegun botuak egitera, funtsgabeki engaia ahal baitgaitzake.

Baiñan nahigabeak ditugunean, izan tzagun xedea eta borondatea xoillki, garraiatuko dugula ungi gure Gurutzea Jaiñkoak manatzen deraukun moldean; eta Gurutze hartan emanen dugula gure gloria, errefusatzeraiño gizonen partetikako solayimendu guziak, eta batzuetan Jaiñkoaren ganikakoak ere. Ez dezagula galde, ez desira bertzerik, baizen Guziz botheretsuaren eskuak gure atsekabetan sustenga gaitzan; eta haren Graziarekiñ batean, pazienziarekiñ eta ixillik,

yasan detzagun, berak egorri nahiko darozkigun,
pena eta nahigabe guziak.

XXX. KAPITULUA

*Perfekzionario bidean dabiltzala
uste duten Giristiño batzuek, nola
tronpatzen diren.*

Behiñ eta bietan etsaia garaitua den ondoan, ez da horrengatik gelditzen, hirurgarren asalduek eta atakhada bat eman gabe. Bere ahalaz, ahantz arazten darozkigu, oraietan gudukaturik heldu garen pasioneak eta bizioak; eta burura ematen daroku, perfekzioe halto eta gure aha-
lez goragoko bati lotzeko borondate eta deseñu banhoa; zeren seguratu baita, behiñere harata-
raiño eziñ iganen garela. Horra zergatik oren guzian errezibitzen ditugun heriotzeko kolpeak, eta ez baitugu pensatzen ere, hauki erremedio ematea: ezen deseñu eta borondate lilluragarri horiek iduritzen zaizkigu egiazko obrak eta efektuak direla; eta superbiostasun gorde batez, uste dugu, ya saiñdutasunik gorenera iganak garela. Gisa huntan: eziñ yasan dezakegu nahigaberik eta afrunturik xumena: eta guziarekiñ

egoten gare luze Meditazionean, deseñu handiak formatzen, tormenta latzgarrienak eta Purgatorioko penak ere yasanen ditugula, Jaiñkoaren amorea gatik.

Gu tronpatzen gaituena hauxe da: nola gure gorphutza ez baita hainitz ikharatzen urrundikako sofrikariez; pena handienak, pazienza handiago batekin, efetuzki eta bere baitan, paraitzen dituztenekien, gure guruak berdiñean emateko ausartia hartzen dugu. Etsaiaren artifizio haiñ danyerosari ihes egiñ nahi badiogu, fermuki delibera-zagun gonbatatzea, eta hitzak utzirik, obraz guduka zagun, inguratzen eta hurbilldik atakatzen gaituzten etsaien, nonbre handia. Hor-tik ezagutuko dugu, ea gure deseñuak eta gure proposak flakoak ala yenerosak ziren, itxurazkoak ala ziñ-ziñezkoak; eta iganen gare perfekzio-nera, Saiñduek erakhartsi darokuten bide egiazkoaz.

Maiz eta ardura atakatzen ez gaituzten etsaiez denaz bezanbatean, ez gaitezela hauk gudukatzeaz hainitz penetan eman, non ez dugun aiñtzinetik ikhusten, zenbait okasionetan eta zenbait orduz, gure kontra altxatuko direla.

Ezen hunelakoen atakadak sustengatzeko estatutan aurkhi gaitzentzat, goizdanik aiñtziñkar hartu behar dugu, haukien garaitzeko deliberazione fermu bat.

Ordean zein nahi den fermua izan dadiñ hartzen dugun deliberazionea, ez dezagula hau har bitoria batentzat; zenbait denboraz bertutezko obretan gure buruak trebatu bagintu ere, eta bertutean haiñitz gora igan bagiñe ere. Egon gaiten bethi humilltasunean: gaizki guziak igurik atzigun gure flakotasunaren partetik: mesfida gaiten geure buruaz: eman tzagun gure fidantzia guzia Jaiñko xoilla baitan: maiz othoitz zagun, guduan borthitz gaitzala, hirrisku guzietarik begira gaitzala; gure bihotzetan beregaiñki itho detzala urguilluaren, presumzionearen, eta gure indarren gaiñean dugun fidantziaren sentimendu guziak. Horra zein medioz uste izan dezakegun perfekzionerik gorenera igan ahal gaitzekela; bertze aldetik zenbait default xumetarik korreyitzea pena handi bat dugun arren. Jainkoak maiz hunelakoak uzten darozkigu gu humiliatzekotzat; eta moien hortaz, gure obra onez ardietsi

ditugun merezimendu ttipi eta aphurrak konzer-
ba detzaguntzat.